

Herririk Herri | 7 |

Traña-Matienako jubilatuen etxe berria apirilean zabaltzea aurreikusi du Udalak

Ekonomia | 10 |

Fytasa-Ductilorreko zuzendaritza eta beharginek akordioa adostu dute



Berbaz | 19 |

M. Monroy: "Gazteek berdintasunean jaio direla uste dute, eta ez da egia"

Arau berriek eragina dute eskualdeko harrobietan

> Erabaki berriek ustiapena zabaltzea eragotziko diote Mañariko Zalloventari

> Bertan behera utzitako harrobiak leheneratzea gura du Legebiltzarrak

16-17



Atxarteko harrobia Urkiolako Parke Naturalaren barruan dago. Kepa Aginako

Mikeldiko idoloaren erreplika izen bereko kalean ipini dute

Durango • Urteetan Ezkurdin egon den Mikeldiko idoloaren erreplika Mikeldi kalean ipini du Udalak: "Idolo originala inguru horretan aurkitu zutela gogorarazteko aukeratu dugu lekua". Bilboko Euskal Museoa dagoen benetako idoloa herrira ekartzeari eskatuko du Udalak berriro.

2

Auzo Kontseilua sortzeko estatutuak adostu dituzte

Elorrio • Auzoetako beharrezane hobeto erantzun guran, Auzo Kontseilua sortu gura dute herrian. Estatutuak adostu dituzte, eta datorren egueneko plenoaren onespena jasotzea izango da hurrengo pausoa. Auzo Kontseiluak izaera kontsultiboa izango duela azaldu dute.

4

Doctor Deseoren lan berria Plateruenean

KULTURA • *Deseo: cartografía imposible* diskoaren aurkezpen kontzertua egiteko Durangoko Plateruena aukeratu du Doctor Deseok. Apirilaren 16ko hitzorduan egin digu berba Francis abeslariak.

13

Azken postua ekidin gura du bihar DRTk

KIROLAK • Ohorezko B mailako azkenengo talde biak lehiatuko dira bihar Arripausuetan. Durango Ilarduyak irabazten badu azkenaurerako geratuko da, eta promozioa itzulerako neurketa etxean jokatuko du. Beste multzoan Malagak eta Jaenek jokatuko dute mailaz zein jaitsi ebazteko promozioa.

24

• Iurreta

Erabilitako olio biltzeko edukiontzi berriak ipini ditu Udalak

6

• Berriz

Mural lehiaketan aukeratu dute frontoiko hormako irudi berria

8

• Atxondo

Beasain-Durango autobidea

6

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

APAINGARRIA ETA
INDUSTRIALA

Pintaras
Sagasta
Pintaras

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

• Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
• Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Mikeldiko idoloaren kopiak kokaleku berria dauka, izen bereko kalean

Mikeldi kalearen amaieran eta zubi berriaren artean egongo da idoloaren kopia hemendik aurrera

Mikeldiko idoloaren kopia, urte askoan Ezkurdiko plazan egon zena, Mikeldi kalera tokialdatu dute, eta huraxe du kokaleku berria eguztenaz geroztik.

Idoloaren kopia hori 70eko hamarkadan egin zuten, eta orduz geroztiko ia urte guztietan Ezkurdiko plazan egon da. Plaza hori berrizatu zenean, handik kendu eta beste toki esanguratsu batera eramateko erabakia hartu zuten. Toki esanguratsu hori Mikeldi kalean, zubi berriaren ondoan dago: "Mikeldiko benetako idoloa,

Orain urtebete idatzi bat bidali zuten Euskal Museora hartu-emanek ekiteneko asmoz, baina ez ei dute erantzunik jaso

originala, hantxe aurkitu zela gogorarazteko aukeratu dugu toki hori. San Bixente ermita inguru horretan egon zen, eta XIX. mendean bigarren erdialdean aurkitu zuten idoloa zonalde hartan", adierazi du Aitziber Irigoras alkateak.

Benetako Mikeldiko idoloa Bilboko Euskal Museoa dago; Unamuno plazan. Erlikia hori Durangora ekartzeko asmoz, iaz museoko arduradunei idatzi bat geroztik.

Hile honen barruan beste idatzi bat bidaliko dietela jakinarazi du Irigoras alkateak

bidali zien Durangoko Udalak, alde bien "hartu-emanen abiapuntu" izateko asmoz, baina "oraindik ez dute erantzunik jaso".

Horiek horrela, Irigoras jakinarazi duenez, hile honen barruan beste idatzi bat bidaliko diete. Hartu-emanek ekiteneko izango du helburu idatziak, baina beste informazio bat jaso guran ere baliatuko dute; izan ere, "ez dago argi Mikeldiko idoloaren titulartasuna norena den, eta zelan iritsi zen Bilbora". Beraz, "arlotan horretako agiri edo informaziorik badaukaten ere galdetuko diegu".

Inoiz idoloa Durangora ekartzea lortuko balute, Arte eta Historia Museoa "espazio aproposa" dagoela azaldu du Durango-



Mari Jose Balier alkateordea eta Aitziber Irigoras alkatea eguzteneko inaugurazioan izan ziren.

ko alkateak: "Liburutegi berria egin zenean Arte eta Historia Museoa zegoen artxibo historikoa haraxe tokialdatu genuen, eta libre geratutako espazio hori toki duina litzateke". Idoloa han kokatzeko "lan batzuekin beharko lirateke", baina, bestela, "toki egokia delakoan daude".

Kurutze Santua dagoen tokia atondu eta Kurutzea bertan eza-

rri zutenean, idoloa bertara alda zitekeela pentsatu zuten, "baina biak toki berean ipintzea ez zitzaigun zentzuduna iruditu", Irigoras esanetan.

Mikeldiko idoloa Kristo Aurreko VI. mendetik IV.era artean egin zutela uste dute, Euskal Museo-ko datuen arabera. Oinen artean eguzkia eta ilargia ageri diren disko borobil bat dauka. ■ J.D.

Umeenganako afektibitatea landuz, aitentzako ikastaroa

Berdintasun Sailak aitentzako afektibitate eta haurrei masajeak emateko ikastaroa antolatu du

Durangoko Berdintasunerako Udala Sailak aitei zuzendutako afektibitate eta haurrentzako masaje ikastaroa antolatu du. Bultzatzaileen arabera, "ikastaroaren oinarria umearen eta aitaren arteko topaketa ukimenaren bitartez bultzatzea da". Ikastaroaren antolatzaileek azaldu dutenez, "aitaren eta seme-alabaren arteko lotura aberasten saiatuko gara, giro lasai eta komunikazio afektiboaren bitar-

Maiatzaren 8tik ekainaren 5era izango da ikastaroa Andragunean; hantxe bertan eman daiteke izena

tez eta umeari masajeak eginez bere lehenengo hilabeteetatik aurrera".

Ikastaroa Andragunean (Pinondo Plaza, 1) antolatu dute. Aurkezpen berbaldia apirilaren 21ean, eguztenean, 19:00etan emango dute. Tailerra maiatzaren 8ko larunbatetik ekainaren 5eko larunbatera izango da. Izen-emanetara Andragunean bertan egingo dute. Jaioberriak bilerara eraman daitezke. Haurtzaindegiz bitzua eskainiko dute, baina aurretik eskatu beharko da, apirilaren 14a baino lehenago, 944 65 7092 telefono zenbakian. Informazio gehiago honako helbide elektronikoan lortu daiteke: andragunea@durango-udala.net helbidean. ■ J.D.

Udalbatzarrak martitzenera aldatu dituzte

Martxoko udabaltzarrean, hemendik aurrera Durangoko udalbatzarrak hileko azkeneko egunen barik hileko azkeneko martitzenetan izatea onartu zuten. EAJ, PSE-EE, PP eta Aralarrek alde bozkatu zuten; Talde Mistoak, aldiz, kontra. Zinegotzi batek orduz arazoak dituelako eskatu dute aldaketa.

PSE-EEko zinegotzi Pilar Riosek hurrengo batean besteren bati antzeko arazoren bat suertatzen bazaio, "guztion aldetik kontsiderazio bera" izan dadila eskatu zuen. Oier Perez Talde Mistoko zinegotziak ezezko botoa arrazoitu zuen: "Egun aldatu gabe baina udabaltzarrean orduaz ez gaude ados. 17:00etan jende asko lanean dago oraindik; 19:00ak ordu egokiagoa dela pentsatzen dugu". ■ J.D.

Idolo originala Durangora ekartzea lortuko balitz, Arte eta Historia Museoa kokatuko lukete

Hainbat ekintza Ibaizabal ikastolaren urteurrenean

Besteak beste, Andoni Egañak gurasoen eta nerabeen arteko komunikazioaz jardungo du

Hainbat ekintza eta jardunaldi antolatu ditu Ibaizabal ikastola, sortu zuteneko X. urteurrena ospatzeko. Apirilaren 15ean eta 22an hitzaldi bana antolatu dute, eta maiatzaren 1ean egun osoko jaia.

Hitzaldietako gai nagusia komunikazioa da, eta hainbat hartzaile zuzenduta daude. Lehenengo apirilaren 15ean izango da Durangoko hizkuntza eskolako auditorioan. 19:30etik aurrera, Andoni Egaña bertsolariak nerabeen eta aita-amen arteko komunikazioari buruz jardungo du. Apirilaren 22an, haur hezkuntzako ikasleek *Ipuinaren garrantzia haur-adierazpenean: Ipuina zubi* hitzaldia eskainiko dute ikastolan, 17:30ean hasita.

Maiatzaren 1eko jaia

Maiatzaren 1ean egun osoko jaia antolatu dute. 12:30ean Ibaizabalen batu eta trikipotea egingo dute. Ondoren, 14:30ean, bazkaritara batuko dira ikastolako pilotalekuan. Bazkalostean bideo emanaldia, bertsolariak eta Oaxabi taldeagaz erromeria egingo dituzte. Azkenik, 19:00etan, Zarrada batukada taldeak joko du.

Bazkaritarako txartelak erosteko azken eguna apirilaren 25a da, honako tokietan: Durango Ibaizabalen eta Plateruenean; Zornotzan Andra Mari ikastolan eta Urtza tabernan; Elorri Txin-xirri ikastolan eta Parra tabernan; Galdakaon Eguzkibegi ikastolan eta Goizargi tabernan. ■ J.D.



Babes ofizialeko 460 etxebizitza sustatuko ditu Durangoko Udalak

Proiektu batzuei ekin diete eta beste batzuetarako hitzarmena sinatuta dago



Faustegoienan eraikitzen etxebizitzetako batzuk eraikitzen hasita daude. Itsaso Esteban

Durangoko Udalak babes ofizialeko 460 etxebizitza eraikitzea sustatuko du, hainbat erakunderen bitartez. Proiektu batzuk martxan daude, San Roken eraiki gura dituzten 140 etxebizitzak, esaterako; beste hainbat hitzarmena sinatuta daukate. Odi Bakar enpresa zegoen lurzatian, Aramotzen, Faustegoienan eta Arripasuetan ere sustatuko dituzte etxebizitzak. Udalaren lurzoru batzuk jarduera ekonomikoetarako —hirugarren sektorerako eta industria— eta ekipamenduetarako ere erabiliko dituzte.

Bost egitasmotan banatuta egin dute eraikuntza honen aurreikuspena. Egitasmo horietatik hiru

Faustegoienan 160 etxebizitza eraikiko dituzte; urbanizazio lanak aurten burutuko dituzte

Odi Bakar zegoen eremuan 68 bizileku egingo dituzte; babes ofizialekoak 58 izango dira

aurreratuta daude, adierazi duteenez. San Roken hitzarmena sinatuta dago, eta lur zatia erosi diote Etxebizitza Sailari, 140 bat etxebizitza eraikitzeko. Proiektua prestatzeko aldiari daude. "Ondo bidean, 2011 hasieran" ekingo omen diete lanei.

Odi Bakar enpresa zegoen lurzatian etxebizitza publikoa sustateari ekin diote. Tartean dira babes ofizialeko 58 bat etxebizitza, eta beste 10 salmenta libreko.

Aramotzen, berriz, azalera eskubidepeko 26 etxebizitzatan

datza proiektua. Era berean, badira alokatzeko araubidepeko beste 26 etxebizitza.

Udalak aurreikusita dauka Faustegoienan eta Arripasuetan etxebizitza publikoko hainbat asmo abiatzea ere. Faustegoienan 160 etxebizitzaren sustapena bultzatuko du. Aurten eremuko urbanizazio lanak gauzatu dituztela azaldu dute; era berean, udal etxebizitza publikoaren sustapena hasiko dute.

Arripasuetan, berriz, aurkeztuta dago jabe bakarraren aldeko proposamena. Era horretan, Udalak geroan babes ofizialeko 50 bat etxebizitza eraiki ahal izango ditu. Aipatu hitzarmenean jasota dago, gainera, babes ofizialeko etxebizitzok eraiki ahal izateko beharrezko urbanizazioa egikaritu dadila lehenengo etapari.

Industria lurra garatuz

Bestalde, Udalak jakinarazi duenez, Eguzkitzan dituen lur zati batzuk Bizkailur enpresa publikoari utziko dizkio, hirigintza-exekuzio hitzarmen baten bitartez. Birpartzelatze-egitasmoa tramitatu barik badago ere "sektore hori garatzeko unea" dela adierazi dute: "Horrela krisi egoeratik irteerakoan, lurzorua behar den moduan kudeatuta eta urbanizatuta egongo da, enpresa berriei aukerak zabalduz". Bizkailurrek bere gain hartuko ditu Udalar dagozkion obren finantza-keta, eta Udalak orubeak emango dizkio proportzioan. ■ J.D.

Eguzkitzako Udalaren lur zatien kudeaketa eta exekuzioa Bizkailurren esku utziko dute, hitzarmena sinatu ondoren

GARAI

Argiteria eta kultur etxerako dirulaguntzak

Foru Aldundiak dirulaguntza bi eman dizkio Udalari; uda aurretik adjudikatuko dituzte lanak

Kultur etxea izango deneko obrak atalez atal burutzen ari dira Garain, eta beste pausu bat eman dute aste honetan. Izan ere, lehenengo eta bigarren solairuak atontzeko dirulaguntza eman dio asteon Aldundiak Udalari.

Orain arte igogailua ipintzea, eskailera konpontzea eta fatxada berritzea izan dira egindako

Kultur etxea izango denean argia eta komunak ipiniko dituzte, besteak beste

lanak. Laguntza honek, lehenengo eta bigarren solairuetako argia ipiniko dute, eta komunak ere berrituko dituzte, besteak beste. 75.124 euroko laguntza da; proiektua 135.728 eurokoa da.

Bestalde, San Migel kaleko argiteria aldatzeko dirulaguntza ere jaso du Udalak. Agenda 21 planaren baitan eman dio diru hau Aldundiak: 65.856 euro, hain zuzen ere. Kasu honetan, proiektua 94.080 eurokoa izatea aurreikusitua dute.

Bi lan hauek uda baino lehenago adjudikatuko dituzte. ■ M.O.

OTXANDIO

Txoko ereduagaz, bazkide gehiago Pasealekun

Jubilatuak elkarteko eredu berriak berehalako eragina izan du; bost bazkide berri batu dira

Martxoko azken igandean urteko batzar orokorra egin zuten Pasealeku jubilatuak elkartean. Beste hainbat konturen artean, elkartek txoko funtzionamendua izatea onetsi zuten. Beraz, orain juntan egoteak ez du tabernan lan egitera derrigortzen. Txoko baten egin den antzera, bakoitza arduratuko da bere kontuak apuntatzeko, eta denen elkarlana izango da elkartearen sostengua.

Funtzionatzeko modu berri horrek berehalako eragina izan du denbora laburrean, eta bost bazkide berri batu dira elkartera; 189

ziren, eta orain 194 dira: "Oraindik bazkideek barneratu behar dutena da irabazi asmorik bako elkartea garelako", dio Pili Askorbeitiak. Urte biko epea du bazkideak horretaz kontzientziatzeko, berriz ere lehendakari izendatu zuten-eta ia boto guztiak jasota.

Euren kargua errepikatuko dute Irune Urigoitia lehendakariordeak, Marisa Gonzalez diruzainak, Marino Soloeta idazkariak eta Petra Uribe eta Carmen Soloeta bokalek. Bokaletan aldaketa bat dago: Regina Bengoak Maria Antonia Aceroren tokia hartu du. ■ J.D.

MALLABIA

Bertso jaialdia antolatu du Orraittiok

Bertso jaialdiak hainbat bertsolari ezagun batuko ditu apirilaren 18an, arratsaldeko 17:30ean, herriko pilotalekuan. Maialen Lujanbio, Joxe Agirre, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea oholtzaratu dira. Gai-jartzaile Asier Ibaibarriaga arituko da.

Orraittio euskara elkartek beresorretatik dihardu bertso jaialdia antolatzen. "Urtean antolatzen dugun ekitaldi nagusia izaten da, eta aurrekontuaren erdia behintzat eramaten digu. Punterengo bertsolariak eta herrikoak biltzen saiatzen gara", diote elkartekoek. Sarrera 5 euro izango da, eta bazkideendako doan. ■ J.D.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
saltsan.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik
clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

ELORRIO

Auzoek eta Udalak Auzo Kontseilua arautzeko estatutuak adostu dituzte

Datorren egunean izango den udalbatzarrean bozkatuko dituzte adostutako estatutuak

Joañen hile amaieran eman zuten sortu asmotan diren Auzo Kontseiluari izaera instituzionala emateko azken aurreko urratsa. 15 auzoetako ordezkariak, Niko Moreno alkatea, Gobernu Batzordeko zinegotzi bat eta EAJko beste bat izan ziren batzarrean, eta Udalak proposatutako estatutuak (30 artikulua, hiru kapitulutan banatuta) banan-banan eztabaidatu zituzten. Aho bateko akordiora iritsi ziren.

Batzar horretan ez zen PSE-EEko zinegotzia izan, baina bai goizean egindako Auzo Batzordean, eta orduan "aldeko jarrera" erakutsi zuen, Niko Morenoren esanetan. EHAKo zinegotzia ez zen batzar horietan izan. Estatutuak egueneko udalbatzarrera eramango dituzte, han bozkatu daitezke.

Auzo Kontseiluak auzo guztietako ordezkari bana izango du, eta alderdi politikoetako kideak ere egongo dira, baina boto eskubide barik. Han erabakiko dute, den artean, auzoetako beharrianak zeintzuk diren eta Udalariz zer pro-

Estatutuak onartuz gero Auzo Kontseilua ahalik eta arinen martxan ipintzea da asmoa

posamen aurkeztuko dizkioten. Auzo Kontseiluak izaera kontsultiboa izango du, eta azken erabakia Auzo Batzordearena izango da; Udalarena, alegia.

Auzo Kontseiluagaz helburu nagusi bi lortuko dituzte. Batetik, auzoen eta Udalaren arteko "hartu-mana sendotu" nahi dute; bes-



Besteak beste, Elorrioko 15 auzoetako ordezkariak batuko ditu Auzo Kontseiluak. Kepa Aginako

tetik, "auzoek euren ahotsa eta dinamika propioa izango dute, auzoen elkarlana sustatuz".

Udal hauteskundeak egin eta sei hilabetera aukeratuko dituzte auzo alkateak, hauteskunde bitartez. Auzotar denak dira alkate izateko hautagi, eta alkate izan gura ez duenak uko egiteko eskubidea izango du. Hauteskundeak auzoetan egingo dituzte. Dena dela, estatutuak onartzen badira, Auzo Kontseilua berehala martxan jartzeko asmoa daukate: "Orain arte prozesu honetan

auzoetatik etorri diren ordezkarietako hauteskundeak egin arte, behin behinean, segitu dezaten eskatu diegu", azaldu du Morenok.

Estatutuetan jaso dutenez, hiru hilerik behin batuko da Auzo Kontseilua. Hala ere, "dinamika normalizatua sortzen bada, maiztasuna handitzea erabaki daiteke". Orain, udalbatzar aretoa da Auzo Kontseilua batzeko toki ofiziala, baina batzar horiek auzoetan egiteari ondo deritzote, "auzoetara ahalik eta gehien hurreratzea inportantea delako". ■ J.D.

Hiri Antolamendurako Plana atzera botatzea eskatu dute

Bizirik Betiko plataformak lau alegazio aurkeztu zizkion Planari

Bizirik Betiko ingurugiroaren defentsarako plataformak Elorrioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hasierako onarpenaren (2006ko abenduan) aurretik zegoen egoerara itzultzeko eskatu du. Plataformako Joseba Fernandezek lau alegazio aurkeztu dizkio

Plana hasierako onarpenaren aurreko egoerara itzultzea eskatzen du alegazio batek

Planari. Ondoan, sostengua ematen, Aralarreko, Elorrioko Herritarren Aukerako, Ezker Batuko eta Auzo Koordinakundeko ordezkariak izan zituen.

Lau alegazioetatik azkenean Planari hasierako onarpenaren aurreko egoerara itzultzeko eskatu zuen. Ondoren, "hasierako tramitetik hasita Planaren formulazio berri bat" egitea da helburua. Eskatutakoa onartuko ez balitz, "lehenengo alegazioan eskatzen diren proposamenak Planari sartzeko" eskatu zuen.

Fernandezen iritziz, Planean proposatutako ordenazioa "herriaren eta bertako bizilagunen beharrianetatik kanpora dago": "Ingurugiroaren ikuspegitik, hiritzintza-garapen sostengaezina suposatzen du". Horrez gainera, Denon Artean parte hartzeko prozesuan osatutako txostenaren ondorio nagusiekin "kontraesanean dago".

"Elorrioren 730 etxebizitzatik gora egitea ahalbidetzen du dokumentuak", diotenez

Lehenengo alegazioan jaso dutenez, dokumentu berriak "Elorrioren 730 etxebizitzatik gora egitea ahalbidetzen du, eta baita 33 hektareatik gorako zoru industrialera gertu edukitzea ere".

Alegazioei erantzunez

Niko Moreno alkateak alegazioei erantzun die. Alde batetik, 730etik gora bizileku eraikitzeko mekanismoak zabaltzen direla esatea "gezur biribila" ei da. Bestalde, Aralarreko eta EBk azkenean "maskara kendu" dutela dio, eta sektore industrialera herrigune historikora heltzea "defendatzen" dutela, "San Bizente eta Elizalde erabileta industrialerako izan daitezela proposatzen dutenean". ■ J.D.



Joseba Fernandez erdian alegazioen gaineko datuak ematen.

Erreka kaleko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Gaurtik domekara Erreka kaleko jaiak ospatuko dituzte Elorrioren. Musika (rocka, DJak...), esku pilota, gaztetxoentzako ekimenak... denetarikoko ekintzak antolatu dituzte astebururako.

Gaur, 23:00etan, Gazte Itzala eta Pisontxis taldeen kontzertuak izango dira plazan. Gauerditik aurrera, DJ jaiagaz segituko du musikak Ateneon.

Bihar, 17:00etan, Berriotxo eskupilota eskolako gazteek pilota partiduak jokatu dituzte pilotalekuan. 19:00etan Trikitzio

Gaur Gazte Itzala eta Pisontxis taldeek zuzeneko eskainiko dute plazan

Bihar DJ Makalak eta Jimmy Bidaurretak estilo askotako musika ipiniko dute Ateneon

taldeak erromeriari ekingo dio. 23:00etan, Estricalla, Tres41 eta Trastorno taldeen kontzertuak izango dira Gaztetxean. Barikuan legez, gauerditik aurrera Ateneok hartuko du musikaren testigua, eta DJ Makalak eta Jimmy Bidaurretak runba, swing, jazz, elektronika... doinuekin girotuko dute gaua. Domekan, 18:30ean, gaztetxoentzako festa egingo dute plazan. ■ J.D.

Auzoko jaietarako diru-laguntzen ordenantza prest

Auzoekin adostu ondoren, datorren martitzeneko Gobernu Batzordean onartuko dute auzoetako jaietako diru-laguntzak erregulatzen dituen ordenantza.

Auzoak multzo bitan banatuko dituzte laguntzak emateko orduan. Batetik, egun bakarreko jaiak daude. Horiei, gehienez, 500 euroko laguntza emango zaie: 300 euro janaria erosteko eta 200 kulturekintzarako. Multzo horretan sartzen dira San Anton, San Truman, Santa Katalina (Igurria eta Berriotzabaleta), San Juan, Santa Eufemia, Santo Tomas, San Fausto, Santa Luzia, San Bartolome, San Lorentzo eta San Iurgiko jaiak.

Badira beste jai batzuk, egun bat baino gehiagokoak, eta aspaldiko urteetan hainbat ekintza eratzen dituztenak. Talde horretan daude Gaztetako Erregeak, Argiñetako Kofradi Jaiak, Sanagustinak eta Berrioko Sanestebanak. Bakoitzak 1.200 euroko kantitate finkoa izango du, eta gehigarriak eskatu ahaliko dira. Udalak, gehienez, aurrekontu osoaren %75 lagunduko du. ■ J.D.

Egun bat baino gehiago irauten duten jaiak 1.200 euroko diru-laguntza finkoa izango dute

Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behe, 3. atea
Sakelakoa 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurretza

Baimendun
Instalazioak

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telex és
Instalazioak
Orizola

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurretza • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

ARGITATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B
DURANGO

Sakelakoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085


Arotzeria

EGUIA S.L.

AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Ubide iturgintza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigariak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Formazioa
- LOPD/LSSI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

sagasta ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

IURRETA



Olio batzeko puntuak gainerako edukiontzien ondoan ipini dituzte.

Erabilitako olio batzeko edukiontzi bi ipini dituzte

Bixente Kapanagan eta Andaparapen daude olio batzeko bi guneak

Erabilitako olio batzeko edukiontziak jarri ditu Udalak Bixente Kapanagan eta Andaparapen. Zerbitzu honen bultzatzaileek diotenez, arazo bi konponduko dituzte: alde batetik, etxeko olioak estolderia sistema orokorrean eta saneamenduan eragindako kalteak; beste alde batetik, aipatutako elementu hori gainazal hidrikoetan geratzeko ura oxigenatzea eragotzen duten geruza ikusezinak sortzen dira, eta horrek, era berean, ingurune horretan bizi diren eta horrelako mendekoak diren organismoei eragiten die.

Iurretako Udalak dienez, 2005an etxeko erabilitako olio batzeko kanpaina martxan jarri zuen. Orain arte, olio hileko ostegunetan furgoneta batean batzen zuten. Zerbitzu honek herritarrengan izandako harrera ona kontuan izanda, Udalak "erraztasunak eman gura" dizkie. Edukiontzi bi jarri dituzte edozein momentutan birziklatzeko. Olio hondakinak banatutako ontzian sartu, eta, behin betetakoan, edukiontziak dauden puntuetako batera Bixente Kapanagara eta Andaparapera eraman beharko dute. Aldi berean, beste ontzi huts eta garbi bat jasoko dute. ■ J.G.

Estolderia sistema orokorrean eta ingurumenean sortutako kalteak konpondu gura dituzte

Olio batzeko ontzi beteak edukiontzietan utzi eta beste ontzi huts bat hartzen da

ATXONDO

Udalean da Beasain-Durango autobidearen proiektua

Martitzenean jaso dute Udaltxean Beasain-Durango autobideko Gerediaga-Elorrio zatiaren proiektua. Berau ikusteko eta alegazioak jartzeko aukera izango dute orain atxondarrek. Horretarako, herritarrek 45 eguneko epea daukate, eta Udalak, berriz, bi hile dauzka proiektua aztertu eta alegazioen txostena aurkezteko.

Udalak oraindik ez du hartu proiektua aztertzekeo tarterik, baina David Cobos alkateak autobidearen alde onak eta txarrak azaldu ditu: "AHTa baino azpiegitura

txikiagoa da, baina ingurunean eragingo du; mendiak apurtuko ditu eta zabortegeak beharko dira. Bestalde, trenak ez bezala, onura handia ekarriko dio Atxondori, trafikoa txikituko du-eta". Cobosen ustez, trafikoa murrizteko garraio publikoa lako neurriak ere aztertu behar dira. ■ A.U.

Gura duenak Udaletxean lortu ahalko du Gerediaga-Elorrio zatiaren informazioa. Alegazioen epea zabalik dago.

IZURTZA

Auzobideetan autoen abiadura geldotzeko

Hil honetan gura ditu Udalak, auzobideetako trafikoaren abiadura moteltzeko sistemak ipintzeko lanak abiatu. Besteak beste, oinezkoendako bideak margoitu eta errepidean goruneak ipiniko dituzte, Tokiko Inbertsioetarako Espainiako Gobernuaren diru-laguntzagaz eta 22.000 euroko aurrekontuagaz egingo dituzten obrekin. Lanak Abante Horizontal enpresari esleitu dizkiote, eta datozen asteetan ekingo diete obrei. ■ I.E.

ZALDIBAR

I. Berdintasun Planak hainbat arlotan egingo du behar

Lau urtez indarrean egongo den Berdintasun Plana udalbatzarrean aho batez onartu zuten

Azken Udalbatzarreko osoko bilkuran I. Berdintasun Plana aho batez onartu zuten. Emakunde berrikusi duen plan honek lau urteko iraunaldia izango du. Diag-

Udaleko dokumentu eta irudi guztiak berdintasuna bultzatuko dute, batez ere, hizkuntzaren erabileran

nostikoa egin ondoren, lan egin beharreko esparruak zehaztu dituzte. Aurten, Udalean bertako edo herritarrei zuzendutako dokumentu eta irudi guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko dute, batez ere, hizkuntzaren erabilerari dagokionez. Helburu hori lortzeko eta emakumeen kontrako borritzkeria errotik kentzeko elkarla-

na beharrezko ikusten dute, beraz, kultur eta inmigrazio planekin ere kolaboratuko dute, eta emakumeen elkarrekin ere elkarlana bilatuko dute. Bestalde, hilean behin hitzaldi eta debateak ere antolatuko dituzte, eta liburutegi berrian emakumearen arloa nabarmenduko dute.

Plana indarrean egongo den lau urte hauetan, Udaletxeko berdintasun zerbitzuak hainbat ekin-tza burutu eta hainbat arlotan esku hartuko du; hala nola, Kultura-kirol-euskara, lan, hezkuntza edo hirigintza eta ingurumen sailetan esaterako. Azken honetan, generoaren prespektiba sartzeari beharrezko ikusten dute, izan ere, Berdintasun Planean azaltzen denez, "emakume eta gizonak hiriarren erabilera ezberdina egiten dute, beraz, hirian beharizan ezberdinak dituzte". ■ G.A.

MAÑARIA

Biribilguneko lanen hasierako beharrak egiten dabilta

Bi aste dira herriko sarreran biribilgunea egiteko obren hasierako beharretan dihardutela

Hasieran aurreikusitakoa baino aurrekontu txikiagoagaz—hasieran 900.000 euro inguruko gastua aurreikusi zuten, eta azkenean 780.000 euroko aurrekontuagaz dihardute—, orain aste bi ekin zioten herriko sarreran biribilgunea eraikitzekeo lanak hasteko laginak hartzeari. Udaleko arduradunek diotenez, dena dela, mugimendu handiagoa eta behar esanguratsuenak datorren eguaztenetik aurrera hasia aurreikusi dute.

Udalak lanen ardua esleitu dion Lasuen enpresak apirilean hasi ditu, beraz, biribilgunea eraikitzekeo lanak. Udalean diotenez, lanak uda osterako amaituta egotea da itxaroten dutena.

Proiektua aurkeztu zuten lau enpresetatik Abadiñoko eraikuntzako Lasuen enpresa aukeratu zuten Udalak biribilgunearen egitasmoa egiteko. Uda osterako epea izango du enpresak biribilgunea eraikitzekeo. ■ I.E.



Datorren astean ekingo diete behar esanguratsueni. David Maeztu



ABADIÑO

Apirilean zabaldu gura du Udalak, eskola zaharrean, jubilatuen etxea

Sukaldea eta tabernako barra jarrita daude. Beste altzariak ipini eta eraikina garbitzea falta da

Traña-Matienako jubilatuen etxe berrira lekualdatzea aurreikusi du Udalak. Asteon eraikina garbitzen haste-koak direla azaldu du Jose Luis Navarro alkateak. Sukaldea eta tabernako barra jarrita daude, eta altzariak jartzea gelditzen da.

Jubilatuak bi edo hiru urtez behin-behinean egongo dira eskola zaharreko eraikinean. Errota kultur etxe ondoan eraikiko dituzten etxeen beheko partean behin betiko egoitza prestatzea da Udalaren asmoa.

Jubilatu Etxe berriak 170 metro koadro dauzka. Taberna, ileapaindegia, podologia eta beste hainbat zerbitzu biltzen ditu. Energia sistema bikoitza dauka, fotoboltaikoa eta geotermia.

Abadiñoko alkateak azaldu duenez, bi terraza dituzte. Handienak aurreko aldera ematen du, baina atzeko aldean beste bat izango dute, gimnasia egiteko makinekin. "Leku txukuna gelditu zaie", dio Navarrok

Eskulan tailerrak lehenengo lokaletan egingo dituztela gaineratu du Navarrok. Osakidetzak ez duela instalazio guztia behar eta zati bat tailerrak egiteko aprobetxatuko dutela azaldu du.

Jubilatu etxe berriak energia sistema bikoitza dauka, fotoboltaikoa eta geotermian oinarritutakoa

Eskulan tailerrak lehenengo lokaleko zati batean antolatzen jarraituko dutela azaldu du Abadiñoko alkateak

Eskola zaharra eraberritzeko Tokiko Inbertsioetarako Madrillgo gobernuak emandako diru-laguntza erabili du Udalak. Guztira, 270.000 eurotik gorako inbertsioa egin dute Jubilatue Etxean. ■ J.G.



Jubilatu Etxe berria prestatzen dihardute.

Kamineroaren etxeari irtenbidea ematea eskatu du Udalak

Traña-Matienako Kamineroaren etxeari irtenbidea emateko eskatu dio Abadiñoko Udalak Aldundiari. Inguruan martxan jarri dituzten eraikuntza lanekin inguratuta gelditu da lehendik ere zaharkituta zegoen baserria. Eraikina egoerahorretan ikusita, Jose Luis Nava-

Kamineroaren etxea eraitsi edo beste erabilera bat emateko berritzea eskatu dio Udalak Foru Aldundiari



A8a zabaltzeko lanak egiten dihardute baserriaren inguruan.

rro alkateak Aldundiko Herri-lan Sailari eraikina botatzeko edo eraberritu eta erabilerean bat emateko eskaera egin dio: "Ez badute baserria konpontzeko asmorik, obretako makinak hantxe daudela aprobetxatu eta botatzeko esan eta erantzunaren zain gaude".

Gerediaga elkarteko Jon Irabazabalek dioenez, baserriak 1920. urteko arkitekturako joerakagerian ditu, eta kamineroak han bizi zirenez handik datorkio izena: "Publiko izanda, baserri eder hau berreskuratu zitekeen". ■ J.G.

Langabezian dauden herritarrentzako ikastaroa

INEMekin lankidetzan antolatu du Udalak herriko langabeei lana bilatzen laguntzeko ikastaroa

Abadiñoko berrogeita hamar langaberi zuzenduriko ikastaroa bultzatu du, Udalagaz elkarlanean, INEMekin. Errota kultur etxean, apiriletik udara arte egingo dituzten saioetan, lana aurkitzeko teknikak irakatsiko dizkiete parte-hartzaileei. INEMekin lankidetzan halako proiektu bat bultzatzen duen Durangaldeko lehenengo udala

dela Abadiñoko nabarmendu du Gobernu Taldeak.

Hamar lagunetik beherako taldeetan jardungo dute parte-hartzaileek, eta, besteak beste, agendak eta curriculumak prestatzen eta eskaintzak zelan aurkitu landuko dute. Curriculumak eskaintzaren arabera moldatzeko eta elkarrizketak eta psikotest

Hil honetan hasi eta udara arte, curriculumak eta lan elkarrizketak prestatzen jardungo dute ikastaroan

EAJ: "Ez al daki Navarrok langabetuei zerbitzu hori ematen aspalditik diharduela Behargintza erakundeak?"

probak arrakastaz gaintzeko baliabideak eskainiko dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Jeltzaleen kritika

Gobernuko Taldeak Errota kultur etxean antolatu dituen ikastaroak bultzatzean "Navarrok jarrera propagandistiko hutsa" duela kritikatu du asteon EAJ alderdiak. "Ez al daki Navarrok langabetuei zerbitzu hori ematen urteak daramatzala Durangaldeko Amankomunazgoko Behargintza erakundeak?", dagoeneko badagoen zerbitzu baterako zergatik eskaintzen den Udala galdetzen du EAJk. Bestalde, "Bizkaiko Aldundiak abadiñarrentzat eskainitako sei lanpostuei" Independentieek zergatik eman zien ezezkoa azaltzeko eskatu dute jeltzaleek.

Jeltzaleei erantzunez, ikastaroa antolatzeko era defendatu du beste behin Gobernuko taldeak, eta "ikastaroa herrian bertan jasotzea abantaila handia dela" azpimarratu ohar batean. ■ I.E.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

A. Uireta
pedagogoa

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Uireta Jainaga
PODOLOGOIA 100. Elkargokidea

BERRIZ



Berrizburu futbol zelaiaren aurrean dagoen horman egingo du marrazkia lehiaketako irabazleak.

Mural Lehiaketa, frontoiko horman irudia egiteko

Udalak antolatutako mural lehiaketako irabazleak egingo du marrazkia

Berrizko Udalak Berrizburu futbol zelaiaren aurrean dagoen frontoiko horman irudi bat egiteko aire zabaleko I. Mural Lehiaketa antolatu du. Gaia eta teknika librea da, baina muralak kanpoaldean joango direnez, proiektuak lanen iraunkortasuna eta egonkortasuna bermatu behar dituela jakinarazi du Udalak. Artistek maiatzaren 14rako Udaletxean edo Kultura Etxean zirriborroa aurkeztu beharko dute.

Lan irabazlearen aukeraketa egiteko herritarrei iritzia eskatuko zaie. Horretarako, erakusketa egin-

go dute maiatzaren 17tik 31ra bitartean. Gero, epaimahai espezializatu batek boto gehien izan dituzten hiru lanen artean aukeratu du mural irabazlea. Saria: 3.000 euro.

Horretaz gain, Udalak beste hiru lehiaketa antolatu ditu; XI. Kaleko Pintura Lehiaketa apirilaren 24an egingo dute, eta 16 urteko gorako edonork parte hartu

Berrizko Udalak lau lehiaketa antolatu ditu, hainbat gai, teknika eta euskarrirakoak

dezake. Gaia eta teknika librea izango dira, eta goiz bateko lehiaketa da. Irabazlearen izena egunean bertan emango du epaimahaiak Kultur Etxean. Hiru sari nagusi emango dira eta lehenengo sailkatzen den berriztarrentzat sari berezia. Jaietako Kartel Lehiaketa ere egingo dute, eta parte hartu gura dutenek lanak maiatzaren 14rako Kultur Etxean aurkeztu beharko dituzte. Azkenik, datorren urteko eskola agendaren azalak diseinatzeko lehiaketa: 12 eta 16 urteko gazteek maiatzaren 14rako aurkeztu behar dituzte lanak. ■ G.A

500 euroko isuna gidarientzat, akats larriengatik

Berrizen 500 euroko isuna jasoko dute eta gida baimeneko hainbat puntu galduko ditu akats oso larriak egiten ditzuzten gidariak. Akats larriak eginez gero, 200 euroko isuna ordaindu beharko da, eta arinengatik 100 euro; horiek dira Trafiko Antolaketaren Ordenantzak jasotzen dituen zigorrak, eta udalbatzarrean onartu ondoren indarrean daudenak. Aldaketa horiek azaroaren 24tik indarrean dagoen legea betetze-ko egokitzapenak dira.

Bestalde, testu berri horregaz isuna 30 eguneko epean ordaintzen duten gidariak jasoko duten hobia %50 igoko da. ■ G.A.

Berrizko Udalak hiru ikastaro antolatu ditu apirilerako

Jatetxeetako sukaldariek egindako ikastaroa errepikatuko dute, izan duen harrera ona ikusita

Berrizko Udalak hiru ikastaro antolatu ditu apirilerako. Berrizko bost jatetxeetako sukaldariek egindako ikastaroa errepikatuko du Udalak, urtarreko arrakasta dela-eta, kanpoan geratu zirenei aukera emateko. Berriztarrek herriko jatetxeetako sukaldariak ezagutu eta bide batez jatetxe horiek sustatzeko helburuagaz antolatu du apirilaren 14an hasiko den ikastaroa Udalak.

Doako ardo dastaketa ikastaroa ere badago aukeran, apirilaren 19tik maiatzaren 10era. Guztira, lau saio izango dira eta ardoaren ezaugarri

eta ardoen arteko ezberdintasunak ezagutzeko modua izango da.

Hirugarren ikastaroa 13-16 urte bitarteko neska gazteei zuzendutako sexualitate tailerra da. Apirilaren 16an hasiko da ikastaroa, eta helburu nagusia neska gazteek euren sexualitatea libre eta osasuntsu bizi ahal izatea da. ■ G.A.

Doako ardo dastaketa ikastaroa eta sexualitate tailerra, hile honetarako aukeren artean

DURANGO

Milaka lagunek parte hartu zuten GaztEHerria jaialdian

Milaka gazte batu zen joan zen barikuan GaztEHerria jaialdian. Kontzertuetan jendez lepo egon zen Landako Gunea, eta kalean ere giroa izan zen egun osoan zehar. Arratsaldean Landako Gunean ospatutako musika jaialdian Berri Txarrak, Ojos de Brujo eta Asian Dub Foundation taldeak izan ziren kartelburu, eta jendeak gogo biziz ikusi zituen kontzertuak. Hitzaldiak eta gaztetxoentzako ekimenak ere izan ziren. Eremita eta arlo askotariko gazteak batzen dituen ekimena da GaztEHerria, Euskal Herriaren independentzia eraikitzea helburu duena.



Zortzi urteko kartzela zigor eskaera Enrique Alañarentzat

Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu du Enrique Alaña durangararentzat, "terrorismoagaz kolaboratzea" leporatuta. Beste hamasei lagunentzako ere zortzi urteko kartzela zigorra eskatu dute. Alaña 2002ko maiatzean atxilotu eta espetxeratu zuten auzi honengatik. Baldintzapeko askatasunean atera zen, epaiketaren zain.

Horrez gainera, fiskaltzaren akusazio idatziak jasotzen duenez, hamar urteko kartzela zigorra eskatu dute beste 20 lagunentzako: tartean dira Karmelo Landa eta Jose Luis Elkoro, besteak beste. Azkenik, kartzela zigorrik handiena Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Rufinon Etxeberriarentzat eskatzen du: 12 urtekoa. Guztira, 43 lagun auzipetu dituzte auzi honetan.

BERRIZ

Jai Batzordearen lehenengo batzarra, astelehenean

Datorren apirilaren 12an, Berrizko jai batzordeak lehenengo batzarra egingo du San Pedro eta Santa Isabel jaiak antolatze-ko. Udalak deialdi zabala egiten die berriztarrei bileran parte hartu dezaten. Azken urteetan herritarren parte-hartzea handia izan da, bai jaiak antolatze-ko batzar honetan zein jai egunetan egiteko egoten diren borondatezko lanetan. Jai batzordearen batzarrak hamabostero izango dira, arratsaldeko 19:00etan hasita. Kultur Etxea izango dute bilgune.

ABADIÑO

Umeen Dantzari Eguna 18an

Apirilaren 18ko domekan XIII. Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute Traña-Matienan. Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako dantzariak batuko dira, eta dantza saioak eskainiko dituzte Traña-Matienan. Hori dela-eta, dantzari gazteak etxeetan bazkaltzen hartzeko eskaria egin du Iluntze dantza taldeak. Dantzariak euren etxeetan jaso gura dituztenek hiru tokitan eman dezakete izena: Errota kultur etxean, Petite liburudendan eta Hezgarri liburudendan. Izena eman gura dutenek apirilaren 14a baino lehenago egin beharko dute.



anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo
anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >

“Jarrera matxistei buruz berba egin behar dugu, ezagutu eta aldatzeko”

Indarkeria sexistari buruz hausnartuko dute Elorrion, apirilaren 17an, Maitena Monroyk emandako ikastaroan



Maitena Monroy •

- Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kidea
- 1988tik autodefentsa ikastaroak ematen ditu

Elorrioko Emakume Eskolan autodefentsa ikastaroa emango du Maitena Monroyk. Apirilaren 17an izango da saioa kultur etxean. Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kidea da Monroy, eta 20 urte baino gehiagoan dabil autodefentsa ikastaroak ematen.

Autodefentsa ikastaroa' entzunda borroka kontuak etortzen zaizkigu burura.

Bai, defentsa pertsonala izango dela pentsatzen da, baina hori baino gehiago da. Indarkeria sexista indarkeria berezia da, eta baliabide bereziak behar ditu. Horretarako jakin behar dugu zer den indarkeria sexista. Gainera, autodefentsa egiteko lehenengo gure burua maitatu behar dugu, gure eskubideak ezagutu behar ditugu, eta eskubide horiek praktikan jarri.

Ikastaroan indarkeria mota asko daudela nabarmentzen duzu.

Gutxienez hiru daudela esan genezake. Lehenengo sinbolikoa izango litzateke; kultur eredu bitartez egiten dena. Bigarrena, berriz, estrukturala, rolen bitartez egiten dena. Azkenekoa zuzeneko da, eta hori ditugu

tratu txarrak eta bortxaketak. Indarkeria sinbolikoari buruz ez dugu inoiz berba egiten, baina hori dago indarkeriaren oinarria; jakiteko zer den indarkeria sexista eta

“Indarkeria desagertzea da gure helburua, eta hori gizonekin batera lortu beharko dugu emakumeok”

zelan borrokatu bere kontra, indarkeria sinbolikoa zer den jakin behar dugu.

Eta zer da?

Adibidez, txikitatik, emakumeoi kontuz ibiltzeko esaten digute. Beti. Ez digute esaten emakume garelako kontuz ibili behar dugunik, kontuz ibiltzeko bakarrik. Esaldi horregaz beldurra eraikitzen da. Eta azaldu behar dugu

indarkeria sinbolikoa onartu egiten dugula. Beldurra sartzen digute, eta beldur horrek emakumeak kontrolatzeko baino ez du balio. Indarkeriaren helburua, azken finean, emakumeak kontrolatzea da. Maskulinoa zer den eta femeninoa zer den barneratuta dugu kultur eredu bitartez, eta zatiketa horrek sistema sexista mantentzeko baino ez du balio.

Emakumeak segurtasun barik bizi direla esan genezake?

Bai, beldur horregaz. Emakume batzuk ez dira ausartzen bakarrik mendira joaten, kale jakinetatik pasatzen... eta hori kontrol itzela da. Emakumeok barneratuta ditugu beldur horiek, eta ez gara konturatzen hori indarkeria sinbolikoagatik dela. Gainera, askotan pentsatzen dugu gure errua dela. Zen-

bat bider entzun dugu: “Gizonak arazo bat zeukan, alkoholikoa da...”, edo “Normala da emakumeak doazen moduan joanda indarkeria sexista jasatea”. Pentsaera horiek gizon matxisten jarduna justifikatzen dute, eta emakumeek errua dugula ematen du. Biktima errudun kontsideratzen den delitu bakarra da emakumeen kontrako indarkeria. Hor islatzen da pentsamentu sexista.

Gazteen artean berdintasunerako joerarik ikusten duzu?

Badakigu matxismoa existitzen dela, indarkeria dagoela, baina gero gure bizitzan hori identifikatzea ez da hain erraza. Askotan gertatzen da jarrera matxista izan eta esatea “Ez, ez naiz matxista”. Gure matxismoa ez onartzea

“Txikitatik emakumeoi kontuz ibiltzeko esaten digute beti”

da akatsa. Hori da gertatzen dena gazteen artean. Pentsatzen dute berdintasun garaian jaio direla, baina ez da egia. Eta hori da matxismoari txarrena; ez dagoela uste duguna. Eredu sexistak, baina, ez ditugu aldatu; pentsatzen dugu emakume guztiok berdina izan behar dugula, eta gizon guztiok berdina izan behar dutela. Hori ez badugu aldatzen, ezin dugu berdintasuna lortu. Ikastaroetan adin guztietako jendea egoten da, eta helduen eta gazteen beldurra eta inseguritatea bera da.

“Gazteek uste dute berdintasun garaian jaio direla, eta hori ez da egia”

Gizonekin zelan landu daitezke gai hauek?

Hasteko, nabarmendu gura dut gizon denek ez dutela indarkeria erabiltzen; denek ez direla matxistak. Horregatik esaten dugu ‘indarkeria matxista’ dela; ez dela ‘genero indarkeria’. Gizonek ere hausnarketa egin behar dute, emakumeekin batera. Indarkeria desagertzea da gure helburua, eta hori ezin dugu emakumeok bakarrik lortu. Adibidez, eskolako curriculumean ez da sexismoari buruz hitz egiten, eta hori oso inportantea da. Hitz egin behar dugu matxismoari buruz, gero gure bizitzetan identifikatzeko eta aldatzeko. Ez badugu ikusten, nola aldatuko dugu? ■ A.Ugalde

EKONOMIA[>]

> ELORRIO

Akordioa lortu dute beharginek eta zuzendaritzak

Fytasa-Ductilor enpresako beharginek, 16 eguneko grebaren ondoren, akordioa lortu dute enpresagaz

Fytasa-Ductilor enpresako beharginek 16 eguneko greba bertan behera utzi zuten joan zen martxoaren 30ean, zuzendaritzak eta enpresa batzordeak akordioa lortu zutenean. Beraz, enpresak ez ditu iragarritako 21 beharginak kaleratuko, eta bidegarritasun planean sartutako beste neurri batzuk ere bertan behera geratuko dira; hala nola, langileen %15eko soldata jaitsiera eta lanaldia igotzeko asmoa. Akordioan adostu zuten moduan, enpresak daukan egoera ekonomikoa dela-eta, laster suspentzio EREan sartuko dira urte bukaera arte, gehienez lan orduen %50 egongo dira EREan.

Enpresa batzordeak greba mugagabea beharginek jasotako elkartasuna eskertu gura dio Elorrio herriari, Udalarai eta, batez ere, alkateari. ■ A.U./G.A



Beharginak bertan behera utzi zuten martxoaren 15ean hasitako greba mugagabea. J. de La Cruz

> DURANGO

Bisitari kopurua bibidertu du Turismo Bulegoak

Bisitari gehienak Bartzelonakoak izan dira. Atzeritik, batez ere, Erresuma Batutik etorri dira.

Aste Santu honetan Durangoko Turismo Bulegoak 193 turistajaso ditu; iaz baino 97 bisitari gehiago. Bulegoaren iritziz, kokaleku berriak eragina izan du igoera horretan. Bisitarien %57 Estatutik etorri da, gehienak Bartzelonatik; 33 turista, hain zuzen ere. Ondoren, madrildarrak izan dira gehienak, 27 bisitari, eta Valentziatik 11. Atzeritik ere 12 turista joan

dira informazio eske, turismoa egin guran. Gehienak Erresuma Batukoak izan dira, baina alemaniarak, frantziarrak, suediarak eta Estatu Batuetatik etorritakoak ere baziren tartean.

Turista gehienek egonaldi laburrak egin dituzte. Inguruetatik ere hurreratu dira, gehienak Bizkaitik –batez ere, Bilbotik– eta Gipuzkoatik. ■ G.A

> DURANGALDEA

Zilarrezko domina Launa upategiko bi ardorentzat

Launa ondua 2007 eta Launa erreserba 2004 ardoek zilarrezko dominalortuzuten 'Bacchus 2010 Nazioarteko IX. Ardo Lehiaketan'. Unax Unzalu upategiko arduradunak azaldu digunez, sariak "Launa familia upategia egiten dabilen lan handiaren frogargiak dira". Lehiaketan 21 herrialdetako 1.624 kalitateko ardok parte hartu zuten.

Ardo eta Mahatsaren Mundu mailako Antolakuntzak antolatzen duen lehiaketa 'Ingurugiro, Nekazaritza eta Arrantza Ministeritza' eta 'Nazioarteko Enologoen Elkartearen' babesagaz. Lehiaketak ardoen munduko hiriburua bilakatu zuen Madril martxoaren bigarren hamabostaldian.

Sari hauetaz gainera, Launa upategiko hainbat ardok 2008az geroztik nazioarteko hainbat sari jaso dute, horien artean iazko urrezko bi dominak. ■ G.A

Ardo lehiaketan 21 herrialdetako 1.624 kalitateko ardok parte hartu zuten

> DURANGALDEA

Durango merkataritza gune ireki bihurtuz

Durangoko Udalak eta +Dendak elkarteak herria merkataritza-gune ireki bihurtzeko akordioa sinatuko dute. Komertzioaren Foroan adostutako ekimenagaz, Durango azpiegitura eta zerbitzuetan merkatalgune handien pareko Bizkaiko lehenengo herria izango dela azaldu dute +Dendakeko arduradunek. Ekimenamartzan jartzeko erabakia +Dendakek, Behargintzak, merkataritza-ko teknikariek, Udaleko Gobernu Taldeak eta oposizioko alderdiek hartu zuten.

"Durangok merkatalgune handietakoen pareko azpiegitura eta zerbitzuak izango ditu"

Udala izango da proiektua bultzatuko duena. Santiago Reyes +Dendakeko gerenteak azaldu duenez, Durangoko merkataritza eskaintzen dituen produktuak kalitate, prezio eta aniztasun aldetik merkataritza-gune handiek eskaintzen dutena baino "hobea" da. Hala ere, "kolektibo moduan duten irudia indartzea" falta ei zaie ■ J.G/ G.A

■ kolaborazioa



Augusto Uriarte Behargintza

Ilusioak

Ilusioa esatean ulertzen duguna positibo den zer edo zertan jarritako esperantza bada, beldur naiz ilusio asko ote diren gainbehera datozenak, Txileko eta Haitiko eraikinak bezala.

Analistek gogoko dute bizi dugun egoera ekonomikoa finantza-krisiarekin hasi zen prozesu bat dela esatea, ondoren ekoizpen eta kontsumo krisi bihurtu zena. Hori esanda, aurreikusten dutena da laster hasiko garela gehiago kontsumitzen eta produzitzen, eta horrela aterako garela krisitik. Ez dutena ulertzen da hau krisi sozial bat dela, lanik ez daukaten milioika pertsona daudela, eta gaizki pasatzen ari diren pertsonak ez daukatela esperantzarik.

Zenbat ilusiozko proiektu ari ote dira lurra jotzen oreka, lasaitasuna eta bizitzarako autokontzientzia emango duen lan bat ziurtaturik ez dagoelako. Esperantza buruan dago, baina benetako heldulekuak behar ditu. Gauza ziurrak behar ditu, konpromisoak.

Nire lanean egoera pertsonal eta laboral ugari ikusi eta aztertzeke betebeharrak daukat, eta tristetu egiten nau ikusteak zer ilusio gaitasun geratzen den garatu barik bizitzan oinarritzekoak diren gauza horiek falta zaizkien pertsonengan. Begibistakoak dira euren bizitzan gertatu diren galarak, orain hegaldi berriak eragozten dituztenak.

Pentsatu gura nuke krisi honetatik ez garela aterako besterik gabe gehiago kontsumituz eta produzituz, baizik eta pertsonen arteko harreman estilo berri bat ekarriko duen gizarte-aldaketa indartsu batekin. Irabaziak, autoritatea, elkartasuna, konpromisoa... bestelako modu batean ulertuko ditugun testuinguru berri batera joko dugula.

Zer ederra litzatekeen gure irribarrean daukagun ilusio horietako bakoitza aurrera ateratzeko gaitasuna eta laguntza izatea.

Harreman estilo berri bat ekarriko duen gizarte-aldaketagaz irtengo garela krisitik pentsatu gura nuke

*Erredakzioan itzulita

IURRETA INSTITUTUA
Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berriazko Institutua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE S.I.N. PUPERTATIA UNIA

FORMAKUNTZA IKASTAROA:

KONTABILITATE-ANALISIA
(Gaztelesez)

HOBETUZ en dirulaguntzaz

NOIZ: 2010-04-12tik/2010-05-27ra
Arratsaldeko 18:00etatik- 21:00etara
Asteleheneretik ostegunera.

HOBETUZ
Fundazioa Vasco para la Promoción Profesional Continua
Unión Europea
Fondo Social Europeo

Olaburu, 19 48215 Iurreta (Bizkaia) Tfno.: 94 4668800
www.iurreta-institutua.net - 014950aa@hezakuntza.net

KULTURA>



ANTZERKIA> TAILERRA

Ikuskizunen zuzendaritza eta akrobaziak Aste Santuan

Argazkiaren erdian agertzen den Ganso&cia antzerki taldeko Gorka Gansok gidatu zuen, apirilaren 1etik 4ra arte, Durangoko San Agustin kulturgunean izan zen ikuskizunen zuzendaritzari buruzko tailerra. Oihulari Klown, Kontu Kantoi, Rolabola eta Moki-Moki taldeetako kide izandako aktoreak izan zituen asteon Bartzelonan ikastaroa eskaintzen diharduen Gorkak joan zen asteburuan hartzaile; Malaga, Gernika, Donostia, Bergara, Bartzelona eta Durangoko aktoreekin jardun zuen.

Joan zen asteburukoa, baina, ez da Ganso&cia taldeak eta San Agustin kulturguneak elkarlanean antolatu duten lehenengo tailerra:


Gorka ikastaroaren gidari eta antolatzailearen espezialitatea den clown teknika Durangaldeko zaleei gerturatzeko helburuz beste ekinaldi batzuk ere egin izan dituzte; "clowna dugu pasio handiena" dio Gorkak. Durangaldean clown teknikaren zaleen ikuslegoa zabaltzea, baina, batez ere, jendeak clownagaz euren beste gozatu dezala lortzea dute tailerraren antolatzaileek jomuga.

Akrobazia eszentrikoak ere landu zituzten apirilako lehenengo lau egunetan San Agustinen, clownagaz eta umoreagaz zerikusi handia dutelako; erorketak, kolpeak eta ezbeharrak barrea eragiteko baliatzen jakitea baita akrobazia eszentrikoen funtzioa. ■ I.E.

Erorketak, kolpeak eta ezbeharrak barrea eragiteko baliatzen ikasten

12 Makala eta Bidaurreta Ateneoan

Jimmy Bidaurreta eta Dj Makalak gidatuko duten sesioa antolatu dute, apirilaren 10erako, Elorriko Ateneoan: elektronika askotariko doinuekin nahastuko dute.



'Deseo: Cartografia Imposible'

Apirilaren 16an Durangoko Plateruenean abiatuko du Doctor Deseo talde bilbotarrak disko berriaren aurkezpen bira. Francis abeslariagaz egon gara.

MUSIKA > EMANALDIA

Jimmy Bidaurreta eta Dj Makala Elorrioko Ateneoan

Apirilaren 10eko gauerdian ekingo diote sortzaile gipuzkoar biek Ateneoko emanaldiari; askotariko soinu eta doinuak uztartzen dituzte



Apirilaren 10eko gauerdian Elorrioko Ateneoan izango ditugu Jimmy Bidaurreta donostiarrak eta Dj Makala zarauztarra saioa eskaintzen. Jazza, elektronikak, funka, hip-hopak, ska zein soul doinuak uztartzen dituzte sortzaile biek euren sesioetan.

Musikan bere ibilbidea 90eko hamarkadan hasi zuenetik emanaldietan eskaintzen duen musika estiloen aniztasuna zabaltzen joan da Makala, eta askotariko doinu eta erritmoen erakusgarri da bere zuzenekoak.

Pianista legez, besteak beste, Ortophonk moduko proiektuetan ezagutu dugu, bestalde, Jimmy Bidaurreta, eta antzerkirako eta zinemarako ere sortu izan du musika. Egun, Gasteiz Big Band taldeko zuzendaria denaren azkeneko sorkuntzak izango dira apirilaren 10ean Ateneoan entzungai.

Soinu eta doinu ugari uztartzeko baliabide teknologikoak erabiltzen dituzte bai Makalak bai Bidaurretak, eta nazioarteko hainbat eszenatokitik erakutsi dute euren lana. ■ I.E.

Jazza, elektronikak,
funka, hip-hopak
uztartzetik sortutakoak

Ibilbide luze eta oparoa
dute bai Makalak
bai Bidaurretak

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal
Gerediagako kidea

Galtzadetako haritza

Aurten ere, martxoaren 31ko dataren inguruan, gerra garaiko samina kaleratu dugu. 2010. urte honetan bereziki, bizia eta askatasuna maitatzeagatik, orain dela 70 urte gure herrian kartzelatuak izan ziren emakumeak eta euren seme-alabak izan ditugu gogoan.

Euren sena puskatzeko asmoarekin, frantsesetan eraikitako ziega beltzean funtzionario, guarda eta monjen eskutik piztiak izan balira bezalako tratua jasan zuten 2.000 emakumeak. Euren Galtzadetak herrietatik urrunduz, senitartekoen elkartasuna jaso ez zezaten, Durangora ekarriak izan ziren, durangar bat (Esteban Bilbao) Francoren justizia ministro zelarik. Galtzadetak eraikitzen zen etxe hau ezagutu duzuenok, pentsatu nolakoa izan zitekeen hura.

Gure herrian egin zituzten urteak gogorrak izan arren, herritar askoren bihotz berotasuna ere izan zuten. Ez ditugu euren izenak ezagutzen baina durangar emakumeak antolatu ziren, gose garai hartan kartzelako haurren bizitza hobetzeko ahal zuten neurrian. Ez zen izan ahuntzaren gau erdiko ez tula. Galtzaileei elkartasuna adieraztea oso arriskutsua zen. Andre eta ume haien bihotzean jasotako laguntza eta esker ona betirako gelditu zen.

Heriotza ere izan zuten bidai horretan kide. Gosea, tratu txarrak, zikinkeria eta abarren ondorioz hamar andre eta ume betirako gelditu ziren Durangon. Kanposantu berean, lurrak bat egin zituen kanpotik etorritako hegazkinek martxoaren 31n hildakoak eta kanpotik 1940. urte hartan hiltzera ekarritakoak.

Euren oroimenez haritz bat landatu genuen kartzela zegoen aurrealdean, martxoaren 30ean. Urte batzuk barru emango duen gerizpeak gizon eta andre askeak babestu ditzala.

IPUIN KONTALARIAK > EMANALDIAK

Apirilaren 15ean, 11:00etan
(eskolako ikasleentzako)
Luciano Federico (Italia),
'HUMOR AL DENTE'

Apirilaren 16an, 11:30ean
(eskolako ikasleentzako)
Mirta Portillo (Kuba),
'CUENTOS DE AMOR Y HUMOR'

Apirilaren 16an, 22:00etan
Nunila Lopez (Katalunia),
'CUENTOS PARA ANTES DE DESPERTAR'
Christian Atanasio (Alemania),
'JUGLAR CON LAS PALABRAS'



Kuba, Katalunia, Alemania eta Italiako ipuin kontalariak

Apirilaren 15ean eta 16an dira 2010eko Munduko Ipuin Kontalarien Jaialdiaren emanaldiak. Lau kontalariren saioak izango dira Elorrioko Arriolan aurten; apirilaren 15 eta 16 goizetan eskoletako entzuleei zuzendutakoak, eta apirilaren 16an, 22:00etan, publiko orokorrari zuzendurikoak.

Lau ipuin, munduko lau herritatik ekarrita,
Elorrioko Arriolan

Euren herrialdeetako tradizio-ipuina ekarriko dituzte Italia, Kuba, Katalunia eta Alemaniako kontalariek. *Humoral dente* izeneko saioa eskainiko du lehenik, apirilaren 15ean 11:00etan, Luciano Federico italiarrak. Ikasle gaztetxoenei zuzenduriko saioa da jaialdia zabalduko duen hori.

Mirta Portillo antzezle, irakasle eta ipuin kontalari kubatarren emanaldia izango da eskolako entzulegoarentzako bigarrena: apirilaren 16an 11:30ean izango da Portilloren *Cuentos de amor y humor* izeneko saioa.

Katalunia eta Alemaniako kontalariek jardungo dute, bestalde, apirilaren 16ko saioetan: Nunila Lopez *Cuentos para antes de despertar* eta Bartzelonan bizi den Christian Atanasio *Juglar con las palabras* eskainiko dituzte Elorrioko Arriolan. ■ I.E.

MUSIKA > DISKOAK

UNHE hirukoteak eta lhesbide taldeak, disko berri bana kalean

Martxo amaieran kaleratu du lhesbide talde elorriarrak, *Iheskide* izenagaz, hirugarren diskoa: zortzi kantak osatutako lana da 2003an Elorrion sortutako taldeak abendu eta urtarrilean grabatu duena. Punk eta rock doinu eta erritmoak oinarri dituzten abestiak dira disko berrirako lhesbideak sortu dituenak. Letretan, "zapalduengana" laguntasuna eta babesa, gure herriak bizi duen errepresio politzial, judizial eta mediatikoaren ondorioz izandako bizipen eta sentimenduak, anplifikatzen dituztela diote taldekideek.

UNHEren 'Solosalদি'

Taldekideen artean Josu Aiarzaguena tronpeta-jotzaile berriztarra duen UNHE Trio taldeak ere diskoa aurkeztu berri du: *Solosalদি* izena ipini diote jazz musika jorratzen duen diskoari. Pianoa, bibrafonoa eta tronpeta baliatuta, musika instrumentala egiten dute Iñigo Peña eta Juanan Aizpurua gipuzkoarrek eta Aiarzaguena berriztarrek. ■ I.E.

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Plateruenean orain urtebiegon zinetenean bete-bete egin zen aretoa. Zer oroitzapen daukazu ordukoaz?

Durangoko Plateruena apur bat fetixea da guretzat, egia esan, eta estimu berezia diogu, batetik, kontzertuaren aurreko egunean entsegu orokorra egiteko auketa ematen digulako, eta, bestalde, arduradunekin hartu-eman berezia daukagulako.

'Sexo, ternura y misterio' diskoaren aurkezpen haren oroitzapen berezirik badaukazu?

Bira bateko lehenengo kontzertuekin gertatzen da sentsazioa batzuetan apur bat baldartasun eta urduritasunarena izatea. Teknikoki berba egiten badugu, lehenengo ez da perfektua izaten, baina eragiten du *felling* berezi bat; emozionalki oso intentsoak izaten dira diskoen aurkezpen kontzertuak.

Zer dauka ba Plateruena hain berezi egiten duena?

Halako gauzetan beti oso modu emozionalean jardun izan dugu, eta arrazoi konkreturik egon ez arren, Txiki arduradunagaz eta ingurukoekin *feeling* berezia daukagu. Lokala bera, baina, batez ere, bertan ipini duten energia dugu gustuko. Gauza horiengatik aukeratu dugu Plateruena birari hasiera emateko.

“Perfektuak izan ez arren, oso intentsoak izaten dira aurkezpen kontzertuak”

Zerk bereizten ditu orain urte biko diskoa eta datorren barietatean aurkeztuko duzuenak?

Gaiari dagokionez da desberdina alde batetik: aurreko disko guztietan landu dugun gaia izan arren, lehenengo aldia da disko osoa desioaren gaiari buruz jorratu duguna. *Deseo: cartografía imposible* du diskoak izena, eta desioaren lurralde horiei buruzko hamar abesti dira. Gaiari dagokionez monografikoa da.

Musikari dagokionez, zelakoa da disko berria?

Egin ditugunetik disko barietate handia da doinuei dagokienez: erabiltzen ditugun Fender gitarren soinu garbiak hastapenetako rocka dakarte gogora; horrek mendebaldera garamatza. Badaude baita *Mila eta bat gauak* gogora ekartzen dituzten sonoritateak; ekialdeko soinuak. Hegoaldeko zaporea ere badauka. Musikaren lau puntu kardinalak biltzen ditu, nahiz eta iparraldetik “galdurik egon eta bilatzen jardunda” sortuak izan.

Erritmoetako aniztasun horren sorreran diskoa prestatzen jardun duzuen denboran egindako bidaiaren bat dago?

Musika sorkuntza beti dago esperientzia pertsonalagaz erlazionatua. Musikari moduan bizi duzun eboluzioak esperientzia

“Desioaren alderdi distiratsuenei eta ilunenei buruzkoak dira kantak”

On-line egiten dabilta apirilaren 16an **Doctor Deseo** taldeak Durangoko Plateruenean eskainiko duen kontzerturako sarreren salmenta, eta 600 sarrera baino gehiago salduta daude. Hamabigarren diskoa, **'Deseo: Cartografía Imposible'** izenekoa aurkeztera datoz Doctor Deseokoak, eta disko berriaz berbaz jardun dugu Francis abeslariagaz. Musikaren inguruan eman dituen hogeita bi urteetan egin duen moduan, den guztia oholza gainean ematera datorkigu Francis Plateruenera.



“Desioari buruzko disko monografikoa da egin duguna”

“Musika sorkuntza esperientzia intimoagaz dago erlazionatuta beti”

“Oso gauza potenteak gertatzen dira kontzertuetan: terapia lakoak dira”

intimoagaz erabat lotuta behar du egon. Gero, egia da asko destilatzen dugula, guretzako bakanrik ez, baizik entzuten duenarentzako ere baliagarri izan dadin emaitza. Desioaren alde distiratsuari eta ilunari buruz berba egiten duten hamar kanta dira; guztiok bizi izan ditugun tragedia txiki eta poztasunei buruzkoak.

Abestien sorrerako uneak zelakoak izan dira?

Abestien sorrera erditzeagaz konparatzen dut beti: ikaragarri kostatzen zait kanta bakoitza sortzea. Hasierako prozesua, gitarrari heldu eta melodiak sortzearena ludiokoagoa izaten da, jolasean hasten da kanta. Sortutako hori gero taldeagaz konpartitzen dut... Azkenik, horri zentzu bat, letra bat erditzea introspektzio prozesu bati dago lotuta, eta gehiago kostatzen da. Oso gauza pertsonala eta intimoa da letren sorrera. Horri dagokionez, oraindiko dugu epidurala aurkitu: minez erditzen dugu. Egia da, baita, behin egin eta gero, itzelezko poza dela umea parean ikustea, eta batzuetan akatu egingo zenukeen arren, maitasun itzela diozu. Behin eginda ikustean hasten zara gozatzen.

'Que amanece de nuevo' singleak zailtasunen aurrean aurrera egiteko jarrera bultzatzen du...

Esango nuke abestiaren izenburua dela baikorra: “...ezker deitzen ez nauenean, dena joana denean, denbora agonia baino ez denean, hain galdua nagoenean...” dio letrak.

Hori horrela izanda ere, “aurrea bolie” diozue baina, ezta?

Bai, beti. Abesti honetan, baina, desioa iraganari lotzen zaionean eta aurrera egitea gaitz izaten deneko uneei buruz dihardugu. Eta bai, abesti honetan ere, hala ere, “vals hau dantzatzea, norbait lotzea” da proposatzen duguna, “berriro egunsentia ailegatzeko den bitartean”. Hainbatetan estropezu egin eta jauzi arren, aurrera egitea da dagoen bide bakarra.

Urte biko geldialdiaren ondoren, irrikaz egongo zara oholza gainera igotzeko...

Ikaragarri, bai. Orain arte egingo lan guztiari zentzua ematen diona da. Geldi egoteak dakarrena da desioa handitzea. Entzuleekin berriro hartu-ema-

netan jartzeko gogotsu gaude: oso gauza potenteak gertatzen dira kontzertuetan, terapia baten antzekoak dira. Kontzertu batek irauten duen bi orduetan gertatzen diren etariko gauza batzuk berriro bizitzeko urte erdi igaro behar litzateke eguneroko bizitzan. Naizen guztia ematera ateratzen naiz beti oholtzara. Horregatik, dena ematearen sentsazioa sentitzen ez dudanean erretiratuko naiz: hau ezin daiteke funtzionario baten errutina izan. Larru-jotze baten antz handiagoa dauka.

Zerbait berezia prestatu duzue Plateruenerako?

Badago alde bat, bereziki prestatu duguna: bideo-sortzaile batek abestientzako sortutako irudiak emango ditugu pantailetatik. Kontzertu guztietan dago, bestalde, gure eta publikoaren arteko hartu-emanetik sortzen dena, eta gure kontroletik kanpo dagoena: berezi egiten duena. Bestalde, diskoan kolaboratu duten hainbat ekarriko ditugu zuzenekoetara: Anari, Zea Mayseko Aiora, Bilbon bizi den Maria malagar kantaria, Mikel Piris saxo-jotzailea... ■ I.E.

LITERATURA > LEHIAKETA

Lehen hezkuntzako umeei zabalduriko ipuin lehiaketa

Herriko jaietako Gerbas pertsonaia izan beharko dute protagonista ipuinek, eta maiatzaren 4a baino lehenago aurkeztu beharko dira

Lehen hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleei zuzenduriko lehiaketa antolatu du Abadiñoko Udaleko Hezkuntza eta Euskara Sailak, gaztetxo abadiñarren artean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz.

Zein da Gerbas? izenburua izan beharko dute parte hartu gura dutenek maiatzaren 4a baino lehenago bidali beharreko ipuinek; gaia ere jaietako pertsonaia hori izan beharko dute. Kultur etxeetan edo internet bitartez euskera@abadiano.org helbidean aur-

'Zein da Gerbas?' izenburua izan beharko dute lehiaketara aurkezten diren lanek

Ipuinen bitartez irudimena eta idazkuntza bultzatzea da asmoa

keztu daitezke, eta maiatzaren 28an egingo dute sari-banaketa.

Herrikideak gidari

Udaberri honetan Abadiñon martxan ipiniko duten *Bidaiatu TAN TAN TAN* ekimenaren berri jakin dugu asteen: abadiñarren ahotik, beste lurralde eta kultura batzuk ezagutzeko aukera eskaintzea du ekimenak ardatz. Bidaiaren bat herrikideekin argazki emanaldi edo berbaldi batez konpartitzeko prest leudeken guztiei luzatu diete euren proposamenak kultur etxeetan aurkezteko deia. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUAK

DOKUMENTALA > EMANALDIA

'Burma Vj: reporting from a closed country' Elorrión

Apirilaren 15ean da apirileko Hilean Behin zinema emanaldia Elorrioko Iturri kultur etxean

Burma Vj: Reporting from a closed country filma da apirilean Elorrioko Hilean Behin ekimenaren barruan eskainiko dutena. Anders Ostergaard danimarkarrak zuzenduriko dokumentalaren emanaldia aste bete atzeratu dute, Aste Santua tarteko izanik: apirilaren 15ean, eta ohiko ordu eta lekuan izango da hitzordua: Iturri kultur etxean, 19:30ean hasita.

Besteak beste, Berlinale eta Sundance jaialdietan saritua izan den film dokumentala da *Burma VJ: Reporting from a closed country*, eta Oscar sarietarako izendapena ere jaso du.

Orain urte bi, 2007ko irailean, Myanmar estatuko egoera men-debaldeko komunikabideetara ekarri zituen gertakariak ditu gai nagusi filmak: herrialde hartako ikasleek eta moje budistek osatutako taldearen protestak konstatzen dira dokumentalean: bertako bideo-kazetari bat da kon-takizunaren ardatza. ■ I.E.

Oscar sarietarako izendatua izan da 'Burma Vj' filma



Deneriko doinuak Gazte Herriari amaiera indartsu eta bizia emateko

Apirilaren 2an, joan zen barikuan, Durangoko kaleetan milaka gazte independentista batu zen Gazte Herria deialdiaren barruan antolatutako berbaldi, tailer eta bazkarira. Beste horrenbeste lagun erakarri zituen Landako Gunea musika eta aldarrikapenez bete zuen musika jaialdiak ere; Euskal Herrian zein nazioartean oso entzutetsuak diren taldeen zuzenekoak zeuden aurreikusita.

Soziedad Alkoholika taldea izan zen lehenengoa oholtzara igotzen, eta *Payola* diskoa aurkezten diharduen Berri Txarrak talde nafarraren tartea izan zen ondoren. Aldameneko argazkian agertzen den Bartzelonako Ojos de Brujo taldea izan zen gero erritmo "dantzagarriagoak" eskaintzen, eta eguna eta gaua borobiltzeko, Londresko Asian Dub Foundation eta etxeko Esne Beltza, Gose eta Itziarren Semeak taldeak ere izan ziren Gazte Herria jaialdiari amaiera ematen. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 9 22:00etan
CRAY LABWORKS SHOWCAS 5 YEARS ANIVERSARY
 RUBEN KOSTAS & RUBEN UNDERSOUND
 IX. GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 8 euro (flyer 6)

APIRILAK 10 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
 AIKO TALDEA
 ERROMERIA. Sarrera doan.

APIRILAK 16 22:00etan
DOCTOR DESEO
 CARTOGRAFIA IMPOSIBLE biraren hasiera
 KONTZERTUA. Sarrera: 15-18 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ANDA JALEO, JALEO
 STP Producciones

San Agustín KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Apirilak 10 • 22:00etan

HITZ
 Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 11 Durango



PLATERUENA APIRILA

2010 EGITARAJA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

09

OSTIRALA



GAUELEKTRONIKOA

**CRAY1 LABWORKS
SHOWCASE 5 YEARS
ANNIVERSARY**

LINE UP: Mikel e + Soulrack + El Txef +
+ RUBEN KOSTAS & IKER UNDERGROUND
22:00etan. Sarrera: 8 euro (Flyerrarekin 6 euro)

23

OSTIRALA



MUSIKAKONTZERTUAK

**UEK + KRAUSSK
+ THE WET BAND**

BIDEAN BASQUE WILD TOUR 2010
22:00etan. Sarrera: 5 euro.

10

LARUNBATA



DANTZALDIA

AIKO ERROMERIA

19:00etan. Sarrera doan.

25

IGANDEA



MUSIKAKONTZERTUAK

**ABORTED
+ THE RED CHORD
+ ROTTEN SOUND
+ ANOTHER MORE**

19:30etan. Sarrera: 16-20 euro.

16

OSTIRALA



MUSIKAKONTZERTUAK

**DOCTOR DESEO
CARTOGRAFIA IMPOSIBLE TOUR**

22:00etan. Sarrera: 15-18 euro.

30

OSTIRALA



MUSIKAKONTZERTUAK

**AUDIENCE
+ MANETT**

22:00etan. Sarrera: 8-10 euro.

22

OSTEGUNA



ZINEA EUSKARAZ

**FILM LABURREN
ZIRKUITOA**

20:00etan. Sarrera doan.



01

MAIATZA
LARUNBATA




MUSIKAKONTZERTUAK

**RAISED FIST
+ CALIBAN**

21:30etan. Sarrera: 15-20 euro.

MAIATZEAN DATOZENAK 15 KUDAI+HIRA 21 JUAN PERRO 27 MIKEL ANDUEZA QUARTET 29 THE RIFT TRUCKERS



Natura babesteko urratsak harrobien auzian



Kepa Aginako

Azken asteetan, harrobien gaia ukitzen duten erabakiak hartu dituzte Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak. Batetik, bertan behera utzitako harrobiak leheneratzeko asmoa agertu dute eta, bestetik, parke naturalak ustiapenetatik babestekoa. Durangaldean ere izango dute eragina erabakiok.

Harrobien gaiak txinparta ugari atera izan du Durangaldean aspalditik. Atxarte eta Zalloventa dira beharbada horren adibide ezagunenak. Baina eskualdeko harriaren erabilera urte luzetako kontua da, eta hainbat dira gure mendi edo baso inguruetan berau ateratzeko izan diren guneak. Hain zuzen ere, 49 harrobi topatu daitezke eskualdean; horietatik zazpi bakarrik daude orain funtzionatzen, eta gainerako 42ak geldirik daude.

Durangaldea inguru preziatua izan da produkzio horretako eragileentzat: kareharria, hareharria eta marmola atera izan dira bertatik. Etxe nahiz makroazpiegituren eraikuntzek geroago eta material gehiago

eskatu izan dute eta, 2007an, adibidez, Durangaldea jotzen zuen Jaurlaritzak hiru herrialdeetako kareharrizko erreserbagune nagusi. Ikusteko dago, baina AHTak ere nonbaitetik jan beharko du. Kasu honetan, baina, administrazioak natura babesteko neurriak hartu ditu.

Bertan behera utziak

Bertan behera utzitako harrobiak kutsagarriak eta arriskuak izan daitezke, Atxarteren moduko kasuetan makineria oraindik han dagoelako, beste batzuetan hondakinak daudelako. Hain zuzen ere, 2000. urtera arte, ustiatzaileak ez zeuden berreskurapen plan bat egitera behartuta EAEn.

Aralar alderdiaren iniziatibaz, ustiategi hauek lehenera ekartzeko edo berreskuratzeko plana martxan jartzea onartu zuen Legebiltzarrak martxoaren 25ean. Horren arabera, 2011ko lehen seihilekoan aurkeztu beharko du plana Jaurlaritzak, besteak beste, berreskuratu beharreko guneak aukeratzeko irizpideekin. Plana hobetzeko asmoz, Jaurlaritzak udalerrien eta eragindako beste erakundeen iritzia kontutan hartu beharko du. Adituek diotenez, egoeraren arabera, harrobi batzuek erabilera kultural eta pedagogikoa izan dezakete, historia ezagutzera emanda. Esate baterako, XVIII. mendean Mañariko ustiapenetatik ateratako marmolez eginda daude

Madrilgo Errege Palazioko zutabeak.

Martxan daudenak

Gaur egun, zazpi harrobi daude eskualdean funtzionatzen. Harearria ateratzen da Durangoko lau hauetatik: Bidegane, Santa Apolonia, San Roque 2 eta Lersundi. Kareharria hartzen dute Mañariko hiru hauetatik: Markomin Goikoa, Mutxate eta Zalloventa.

Zalloventa Urkiolako Parke Naturalaren mugen barruan kokatuta dago, eta une honetan produkzioari eusten dio, bere kasua auzitegietan hara eta hona dabilelako. Dena dela, Legebiltzarrak ustiategi horren itxiera eskatu zuen otsailaren 2an, eta horretarako Urkiolako Parke Naturalaren Natur Balia-bideen Antolamendurako Plana aldatzeko prozedura martxan ipini du Jaurlaritzak. Gainera, Euskal Herriko Natura Babesteko Legea ere aldatu zuen Lakuak martxoaren 11n, parke naturaletan ustiapen berriak zein oraingo ustiapen hedapenak debekatuz. ■ J.G. / M.O.

HARROBIAK DURANGALDEAN

MARTXAN: 7

Durango: 4
Bidegane, Santa Apolonia, San Roque 2 eta Lersundi.

Mañaria: 3
Markomin Goikoa, Mutxate eta Zalloventa.

GELDIRIK: 44

Abadiño:	5
Atxondo:	5
Berriz:	2
Durango:	8
Elorrio:	4
Garai:	1
Iurretza:	1
Izurtza:	2
Mañaria:	8
Mallabia:	3
Zaldibar:	5

Atxarteko harrobia berreskuratu guran

Atxarteko harrobia berreskuratzearen alde agertu da Jose Luis Navarro Abadiñoko alkatea. Harrobiak leheneratzeko Jaurlaritzaren ekimenak Atxarte jomugan izan dezake.

Atxarteko harrobiaren ustiapena soka luzeko gaia da. "Herritarren protestek eta Urkiolako Parke Naturalean duen kokapenak sortzen dituen arazoengatik" itxi zutela azaldu du Industria Sailak. Urkiolaren Aldeko Batzordea herri plataformak 90eko hamarkadan harrobia ixteko ekimena martxan jarri zuen. Hainbat herritar ehun egun baino gehiagoan horman zintzilikatu ziren ustiaketa etenaraziz. "Harrobiaren lurra Udalarrenak direnez, enpresari alokairu kontratua ez berriztea eskatzen genuen", gogoratu du Jon Irazabal Gerediaga elkarteko kideak.


Saso hartan Gobernu Taldean zegoen EAJgaz auzitegiatara heldu ziren. "Udalak ustiaketa leheneratzea proposatzen zuen, harrobiaren ustiapena kontrolatua eta mugatua izatea ahalbidetuz", azaldu dute Industria Sailatik.

Urkiolako Parke Naturaleko Patronatuak ere sasoi hartan harrobiaren ingurua berreskuratzekeko plana aurkeztu zuen. Patronatuko kide ere baden Jon Irazabalen berbetan, "harrobiaren beharrezko eraginagaz, zer baldintzatan egon behar diren eta zelan kontrolatu erabaki behar da". Kalterik gutxien egiten


duen lekuan egon behar direla gaineratu du Irazabalek. "Harrobiaren irabaziak enpresendako dira, baina arazoak publikoak dira".

Jose Luis Navarro (Talde Independiente) Abadiñoko alkateak azaldu duenez, "beti defendatu dugu harrobia berreskuratzea. Ustiapenagaz ez gaude ados". Parke Naturalean bertan egonda harrobi horren jardunak ez duela "zentzurik" gaineratu du alkateak. Ingurua berreskuratzeari beharrezko deritza, baina Udalak inbertsio hori egiteko baliabiderik ez daukala azaldu du. Jaurlaritzak edo beste instituzioaren batek ekimen hori aurrera eramatea erabakitzen badu Udalarren "laguntza guztia" izango duela dio Navarrok. Ingurua "arriskutsu" dagoela gogorarazi du. "Leku hori ezin da horrela utzi", azpimarratu du alkateak.

Harrobiaren kontrako plataforma horman zintzilikatu zen



Pablo Garitaonandia



Zalloventa, geroago eta zirrikitu estuagoan

Sakontze berezia merezi duen atala da Mañariko Zalloventa harrobiarena. Parke Naturalaren mugen baitan dihardu; legearen zirrikituak, baina, geroago eta estuagoak dira azkeneko erabakiekin.

Legeek sarri eman ohi dute izkin egiteko aukeraren bat; zenbaitetan, tranpa bere baitan daukate. Zalloventaren auzian, antzeko zeozer gertatzen dela esan daiteke.

Zalloventari ustiapenerako epea amaitu, eta 2002tik aurrera lan eremua hedatzea eskatu zion Jaurlaritzari, bi bider. Hedatuz gero, Urkiolako Parke Naturalaren mugen barrura helduko litzateke. Alegazioak aurkeztu zituzten mañariarrek eta hainbat eragilek, eta

Plan berria osatzen den bitartean, ustiapena gelditu beharko litzateke

bietan eman zien arrazoia EAeko Auzitegi Nagusiak. Bigarren auzian enpresak ipinitako helegitea, baina, Espainiako Auzitegi Gorenean dago oraindik.

Kontua da heldulekuak aurkitu izan dituela enpresak legearen baitan. 90eko hamarkadan, Jaurlaritzak EAEn harrobi izateko gune posibleak zehaztu zituen, eta asko naturgune babestuetan zeuden, tartean Urkiola. Honantza etorrita, Aldundiak zehazten duen Erabilera eta

Kudeaketa Arautzeko Planak dionez, mugen baitan 1.500.000 tona ustiatzeko aukera dauka Zalloventak, gero harrobi osoa leheneratzea bermatuz. Hori baliatuta, 2009ko urtarrilean beste baimen eskari bat egin zuen enpresak.

Aralarrek bultzatu eta Legebiltzarrak onartuta, Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko prozedura hasi du Jaurlaritzak. Plan horrek Aldundiarenak baino "indar handiagoa du berez", eta "plan berria osatu bitartean ustiapena gelditu beharko litzateke", dio Dani Maeztu Aralarreko legebiltzarkideak. Behin plana eginda, Zalloventak ezinezkoa izango omen luke lanekin aurrera jarraitzea.

Bestalde, Jaurlaritzak Natura Babesteko Legea aldatu berri du, eta horren arabera, ezingo da babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen baitan ezelako ustiapenik egin, ez haizetara ez lur azpian. Ustiapenen zabalpena ere debekatu du, eta indarrean dauden jarduerak leheneratzeko proiektuak izan behar dituztela zehaztu du. Zalloventaren kasuan, Legeak zera dio, azterketa teknikoan ostean egiaztatuta dagoela harrobi osoa leheneratu daitekeela, ustiatzen jarraitzeko premiarik barik.

IRITZIA >

Gutunak

Iurretako dantzariok entseguetarako leku bat daukagu! Ez dugu euripean gehiago entseatu behar izango!

Duela hiru urte, Abadetxea erre zenean, dantzariok plaza aldenduak izan ginen, entseguak egiteko leku aproposena galdu genuelarik. Denbora tarte honetan, Goiuria ikastola eta IMIren lokalean izan ditugu gure erreminta, arropa eta gainerako gauzak. Dantza egiteko beharrezkoak diren ezpatak, makilak, bandera, zinta-dantzako palua, arkuak, eta gutxi batzuetan eztanpa egiteko txarrantzia, otzarak, mailuak, lihoa, haria eta bestelakoak hartuta bideratu gara Iurretako plazara. Berau baita dantzariok entseatzeko leku egokiena.

“Salonia” galdu genuenetik, hainbat alditan esan dugu dantzariok lekua Aita San Migel plaza dela. Kantak dioen bezala, “Aitte san migel Ijorretako zeru altuko loria..., agurre zaharrak dantzan ikusi ta harek eitten jok barria...”. Abadetxea erretzea eta gure aurpegiko barrea deuseztea, biak bat izan ziren. Iurretako plazan, sarri, ez zegoen dantzariok.

Dantzariok ekinari esker, plazara gerturatzeko aurreapausu bat eman dugu oraingoan. Argi daukagu, bai dantzan egiteko, eta baita entseguak egiteko ere, eszenatik hoberenak, herri eta auzoetako plazak direla. Udalarekin hainbat berriketaldi izan ondoren, plazara gerturatzeko bidea libre utzi digute.

Dantzariok ekinak bere fruituak eman ditu, baina hori ez zen posible izango Iurretako Udalak bere aldetik ezer jarri ez balu. Gaur egun frontoiko ateak zabalik ditugu dantzariok bertan entseguak egiteko. Euri eta ekaitzek inoiz gure lana zapuztu ezin izan badute, orain are gutxiago! Frontoi barruan lokaltxo bat eman digute, bertan erreminta guztiak sartu ahal izateko; hala ere, lokalaren egoera dela-eta hainbat trastu IMIren lokalean edukitzen jarraituko dugu: makila berriak, nesken arropak eta bandera kasu. Baina Iurretako Udalak frontoiko lokalaz haratago joateko ahozko konpromisoa hartu du. Frontoiaren alboan dagoen bolatokia berriztu eta guri bertan lekutxo bat egiteko aukera aintzat hartu duelako.

Udalak bolatokia erremintak, arropak, bandera eta bestelakoak izateko leku egoki bilaka dezakeela uste dugu. Era honetan, bertan gure gauzak utzi eta plazatik gertu egongo ginatela, eta denbora txarrarekin aterpe baten azpian dantza egiteko aukera ere izango genuke.

Bukatzeko, dantzariok plazan dantza egiteko aukera eman diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Guztiok irabazi dugu, herriaren ahoan irribarre bat baitago orain!
“Aitte san migel Ijorretako zeru altuko loria..., agurre zaharrak dantzan ikusi ta harek eitten jok barria...”

Iurretako Dantzariak

Eskerrik eta zorionik beroenak plateru guztioi

Pozik gaude Durangoko Plateruena kafe antzokiko kideok aurtengo Zilar Asteak izan duen kalitatea eta arrakasta ikusita, eta zelan edo halan ekitaldi horietan parte hartu duzuen guztioi eskerrak eta zorionak eman gura dizkizuegu, banan-banan: antolakuntzan lankide izan zaituztegun Ibaizabal ikastola, Durangoko Institutua, Maristak eta Jesuitak ikastetxeei, Berbaro elkarteari, Literatur Eskolari, San Agustin kultur-guneari, Udal Liburutegiari eta Durangoko Udalari; ekitaldietan jardun duzuen Gotzon Barandiaran, Rafa Rueda, Karrika antzerki taldea, Eñaut Elorrieta, Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Le Petite Theatre de Pain, Xabier Mendiguren, Peru Magdalena, Larraitz eta Eunate Zarrabeitia, Josu Zabala eta Alex Ruiz de Azua sortzaileei; poesiaz, bertsoaz, kantuaz, antzerkiaz, literatur kritikaz zein mendi-ibilaldiaz gozatzena hurreratu zareten 1.000 lagunei; eta, zelan ez, Joseba Sarrionandiari.

Joan zen udazkenean bost urte egin zituen Plateruena, eta orain arteko lanari buruz hausnartu eta etorkizunari begira helburuak zehazteko asmoz zorrotz aztertu genuen gure jarduna, eta ideia garbi batez amaitu genuen: ohiko programazioaz gainera, geure kultur gintza proposamen propioak egiteko jauzia egin behar genuen, eta jauzi hori egiteko Durangoko zein Euskal Herri osoko lagun eta eragileekin elkarlana landu behar genuen, beti ere, euskarazko kultur gintza zabaldu eta bultzatzeko. Hori da gure lan-ildoak: kontsumoko kulturatik harago, edo honago, herritarren gurari, kezka, poz eta interesekin bat egingo duten esperientziak martxan jartzea, euskaraz eta kultur gintzaren egiteko herri-bizitzagaz uztarturik ulertuta.

Bide hori ibiltzeko lehenengo pausuak dira Aikoko lagun dantzaldiak, joan zen udazkenean Kantuaren Kantoia izenagaz kantariak eta kantazaleak batzeko gune izan zedin antolatu genituen elkarrizketa musikatuak, DF bertsozaleentzako eskola, eta, dudarik barik, etorkizunean etorriko diren proposamen berriak. Bide horren orain arteko gailurra izan da aurtengo lehenengo antolatutako Zilar Astea, tontoretik begiraturuta norako berriak eta ekiteko indarrak eman dizkiguna.

Guztion artean geroago eta bide interesgarriagoak egin eta bidelagun berriak ezagutuko ditugun segurantzian, eskerrik eta zorionik beroenak plateru guztioi!

Durangoko Plateruena kafe antzokia

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Jose Luis Zubillaga
EB-Berdeak

Lege-erreforma ala iruzurra?

Ekzer abertzalea hauteskundeetan egon ez dadin Ministroen Kontseiluak onartutako lege-erreformak PSOE eta PPren arteko lehia zoro eta fiktizio bat dira, terrorismoaren aurkako borrokan zein den gogorragoa erakusteko; Mayor Orejak egindako azken adierazpenen ondoren, batez ere.

Paktu horren helburua datozen udal eta foru hauteskundeetan PSE-PPk Euskadin egindako akordioaren zimenduak bermatzea da. Sozialistek eta popularrek euren epe motzeko interesei baino ez diete begiratzen, eta euren hauteskunde ondorengo paktuak blindatu gura dituzte Alderdien Legearekin, gobernatzeko beharko dituzten gehiengoak lege horrek emango baitizkie.

Talde politiko guztiek dute hauteskundeetara aurkezteko eskubidea, eta herritarrek bakarrik dira euren ordezkari nortzuk izango diren aukeratzeko dutenak. Parte-hartzeari eta pluraltasunari eragindako beste estualdi bat da hau.

Euskadin ekzer abertzalea falta da, lehenengo ETak eta ondoren legezko ez izateak blokeatuta, mediatizatuta eta harrapatuta dagoelako.

Ez dira erdi-esanen garaik. Ekzer abertzalea bidegurutzean dago, eta aukeratu egin behar du ETari desagertu dadin jendarean eskatzearen edo bakarrik uztearen artean.

Ekzer abertzaleak aukera bakarra dauka. Bide politiko eta demokratiko hutsak erabiliz ETarengandik bereiztuta aurrera egitea edo desagertzea, eta oraintxe erabaki behar du, areago hurrengo hauteskundeetan egon ez dadin onartutako lege aldaketak eta gero.

PSEk eta PPK epe motzeko interesei begiratzen diete, eta hauteskunde ondorengo paktuak blindatu gura dituzte

*Erredakzioan itzulita

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko apirilaren 9a - 9. urtea - 368 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:	
	Abadiño	Elorrio
	Atxondo	Garai
	Berriz	Iurreta
	Durango	Izurtza
		Mallabia
		Mañaria
		Otxandio
		Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Iban Gorriti, Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

Eusko Labelaren K-rekin
Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

- | | | | | | | | | | | | |
|--|---|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|
| Euskal Okela
Carnes de Vacuno del País Vasco | Euskal Esne Bildotsa
Condensado Lechal del País Vasco | Gernikako Piperra
Pimiento de Gernika | Hegaluzea eta Hegalaburra
Bakitas del Norte y Alota Rojo | Euskal Baserriko Arrautza
Huevo de Caserío Vasco | Euskal Baserriko Oilaskoa
Polla de Caserío Vasco | Euskal Esnea
Leche del País Vasco | Ibarrako Piparrak
Baundillas de Ibarra | Eztia
Miel | Euskal Tomatea
Tomate del País Vasco | Arabako Patata
Patata de Alava | Euskal Babarrunak
Alubias del País Vasco |
|--|---|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|

Eusko Labela: ona den seinale



hile honetako irabazlea:



Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- | | |
|--|--|
| Abadiño
• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA | Durango
• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| Zaldibar
• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8 | Iñaki Harategia
• IÑAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10 |
| Otxandio
• GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25 | Oka Harategia
• OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3 |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Espezializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak



Milagros Arregui (Zaldibar)

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botilla 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakolinezko bonbai-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 16an, 22:00etan EUSKAL STRONG FESTIVAL

Zornotzako Idaba Rock Club-ek hardcore eta metal jaialdia antolatu du asteburu honetarako. Jaialdiaren hirugarren edizioari dagokion lehen kontzertua eskainiko dute apirilaren 16an. Kartel zabala eskaintzen dute: Proudz, Conflit noise, B12, The Angel Manifesto eta Bullets of Misery. Zapatuan berri, Torzinas, Sermonds eta Bittel Honey.

ANTZERKI

BERRIZ

>> 'Artea' apirilaren 16an, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

>> **Umorezko bakarriketa;** Nuria (Panpinpanpox) apirilaren 9an, 23:30ean, Misarben.

>> 'Anda jaleo jaleo' apirilaren 10ean, 20:00etan, San Agustinen.



ERMUA

>> 'Humanus Comicus' apirilaren 16an, 22:15ean, Lobiano Kultur Gunean. Niño Costriniren eskutik.


>> 'Ellas bailan solas' apirilaren 17, 19:45ean, Orbe Kardenalaren plazan.

>> **Haurrentzako antzerkia** 'Krataskacia' apirilaren 17an, 17:00etan, Lobiano Kultur Gunean.



ZORNOTZA

>> 'Julio Vernerren azken bidaia' apirilaren 17an, 18:00etan, Zornotza Aretoan.



BESTEAK

IURRETA

>> **Udalekuetarako izen-ematea.** Udaleku ibiltaria Urbasatik Elizondora, uztailaren 1etik 14ra, eta Udaleku Finkoa Ozaetan, uztailaren 14tik 26ra. Kimuak antolatuta. Informazioa gehiago kimuak@kimuak-elkarte.com, edo 665 72 82 13, 94 620 03 42 telefonoetan.

>> **Iurreta Txirrindulari Elkarrean ibilbideak antolatu ditu** apirilaren 11n, 09:00etan, Iurretan-Lemoa-Artea-Sarasola-Ugao-Zornotza-Iurreta.

ZALDIBAR

>> **Gazteleku,** apirilaren 16tik 18ra, 12-16 urte bitarteko gazteentzat, 16:00etatik 20:00etara, Gaztelekuan.

ZORNOTZA

>> **Gauero, Gaztetxoentzako** (10-15 urte) gaueko aisialdi programa, 20:00etatik 23:00etara, apirilaren 16 eta 17an, 'Ole Ole!!!' Zelaieta Zentroan.

>> **Gazte Gaua,** 14 urtetik gorakoentzatzat, apirilaren 10ean, Zelaieta zentroan.

>> **Gazte Txokoa,** 14 urtetik gorakoentzatzat apirilak 9, 16, 23 eta 30ean, Zelaieta Zentroan.

>> **GR-98 azte Urdaibaiko biosfera erreserbari itzulua,** apirilaren 17an



Ereño-Laida. Izen-ematea eta informazioa Zelaieta Zentroko harreran.

DANTZA

DURANGO

>> **Dantzaldi herrikoa.** Durangoko Plateruena kafe antzokian erromeria, apirilaren 10ean, 19:00etan.

DEIAK

BERRIZ

>> San Pedro eta Santa Isabel jaiak antolatuzko datorren apirilaren 12an, **Berrizko jai batzordeak lehenengo batzarra** egingo du. Udakal deialdi zabala egiten die berriztarrei bileran parte hartu dezaten.

IURRETA

>> **Astehenero jaiak antolatuzko batzarra** egingo dira, 20:00etan, IMIko lokaletan.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> **Asun Areitio Larrinaga margolariaren erakusketa** Errota Kultur Etxean apirilaren 10erarte ikusgai.

DURANGO

>> 'Impresioak' Arte eta Historia museoan apirilaren 9tik maiatzaren 2ra ikusgai, Beittu Art Galleryren eskutik.



IURRETA

>> **Gizarte Ongizatea. Ibarretxe kultur etxean erakusketa** 'Welcome-Ongi etorri- Bienvenido/a' apirilaren 12tik 23ra.

ZORNOTZA

>> **'Bosteko 2010-01-27' erakusketa.** Elena Goñi, Ramón Pérez, Ignacio Sáez, Leire Ugalde. Apirilaren 7tik 28ra ikusgai Zelaietan.

>> **'A mesa puesta'** Laka apirilaren 24tik maiatzaren 28ra Zelaietan.

HITZALDIA

IURRETA

>> **'Bularretik mintzora'** apirilaren 13an 17:30ean, Herri Liburutegian.

>> **Biladi- Gizarte Ongizatea:**

Hitzaldia 'Palestina: La salad bajo la ocupación' apirilaren 14an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

>> **Anderebide: hitzaldia 'Empoderamiento'** apirilaren 15ean, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

IKASTAROAK

DURANGO

>> **Barreterapia** Gure Izarrak taldeak antolatuta, hilabeteko azken ostiraletan, ekainera bitartean. Izena-ematea eta informazioa telefono zenbaki honetan: 665 72 26 63

>> **Zaindu programaren baitan,** Durangoko adinekoen udal egoitzan: **Norbere burua zaintzea,** ikastaroa apirilaren 21ean eta taldeko laguntza psikologikoa apirilaren 20an. Ordua: 17:30-19:30.

>> **Patinaje ikastaroa,** zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzatzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzatzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> **Kontserba begetalak eta mermelada egiten ikasteko ikastaroa,** apirilaren 14tik 28ra, 18:00etatik 20:30-21:00etara. Izena emateko: Berbaro elkartera 946201918 telefonora deitu. Plaza mugatuak; 16 lagunentzako lekua dago.



ERMUA

>> **Ogigintza eta pintxogintza,** apirilaren 15etik 29ra. Izen-ematea Lobiano kultur gunean edo 639 414 205 telefonora deituz.

IURRETA

>> **Solidaridad Intergeneracional: 'Alfabetizazio informatikoa'** apirilaren 13an, 16:00etatik 19:00etara, Kultur Etxean.

>> **Guraso eta hezitzaileentzako doako ikastaroa. Izen-ematea: apirilaren 15a arte, Ibarretxe kultur etxean eta Maiztegi herri eskolan.** Gaiak: 1.- Nola erabili autoritatea gure seme-alabekin, 2.- Teknologia berrien eragina familian, 3.- Nola jokatu eta hezi kontsumoaren gizartean; eta 4.- Nola jokatu

gure seme-alabekin irudi eta itxuraren gizartean.

IKUS-ENTZUN

ELORRIO

>> **Burma JV,** hilean behin dok zikloko dokumentala apirilaren 15ean izango da, 19:30ean.

ERMUA

>> **Laburmetrai emanaldia,** apirilaren 13an 19:00etan, Lobiano kultur gunean.



>> **Haur zinea: Marrazki bizidunak,** H.C Andersen idazle danimarkarren ipuin ezagunetzat disfrutatzeko aukera, apirilaren 12an 17:30ean, Haur Liburutegian.



IPUINAK

BERRIZ

>> **Munduko ipuin kontalariak, Nora Lúa + Luciano Federico** apirilaren 16an, 22:00etan, Liburutegian.

DURANGO

>> **Munduko ipuin kontalariak, Christian Atanasiu (Alemania),** apirilaren 16an, 20:00etan, Liburutegian.

ELORRIO

>> **Ipuin kontalaria: 'Munduko kontalariak'** apirilaren 15ean Luciano Federico (Italia) 11:00etan (eskolarra) Arriolan. Apirilaren 16an 11:30ean (eskolarra) Mirta Portillo (Kuba) eta 22:00etan Nunila López (Katalunia) + Christian Atanasiu (Alemania). Bost kontinenteetako kontalari hauek hainbat istorio kontatuko dizkigute; umorea nagusi



apirileko agenda

Apirilak 10-11-17-18 • Iurretako Txirrindulari Elkarrean 10:00etan. Ibilbide ezberdinak. (72-103km)

Apirilaren 12tik 23ra • Gizarte Ongizatea Erakusketa: "Welcome-Ongi etorri-Bienvenido/a"

Apirilak 13 • EHNE

16:00-19:00, Solidaridad Intergeneracional. "Alfabetización informática" ikastaroa

Apirilak 13-16-20-21 • Iurretako Herri Biblioteka

13an, 17:30 Bularretik mintzora
16an, 18:00 Ipuin kontalaria: Alaitz Muro. 5 urtetik gorakoentzatzat.
20an, 19:00 Irakurleen txokoa. "A sangre fría"
21ean, 19:00 Irakurleen txokoa. "Zinea eta literatura"

Apirilak 14 • Biladi - Gizarte Ongizatea

19:00 Hitzaldia: "Palestina: La salad bajo la ocupación". Juani Rishmawi. Kultur Etxean.

Apirilak 15 • Anderebide

18:30 Hitzaldia: "Empoderamiento: La publicidad discrimina". Hizlaria: Isabel Abella.

Apirilak 16-23 • Ikima tailerrak

17:30 "Ibilbide literarioak"

Apirilak 19-20 • Guraso eta hezitzaileentzako hitzaldiak
18:30 Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa). Kultur Etxean.

IURRETAKO UDALA



duten istorioak, egunerokoari buruzkoak, ipuin tradizionalak...

IURRETA

» **Ipuin kontalaria.** Alaitz Muroren emanaldia, apirilaren 16an 18:00etan, Liburutegian, 5 urtetik gorakoak, Nazioarteko Haur-gazte Liburuaren Egunaren baitan.

JAIK

ELORRIO

» **Erreka Kaleko Jaik.** Barikuan 'Gazte Itzala' eta 'Pisonbis' Elorrioko taldeen kontzertua egongo da plazan. Gauerdian DJ jaia hasiko da Ateneoan. Apirilaren 10ean 17:00eta esku pilota partiduak. 19:00etan Trikizo taldeagaz erromeria eta 23:00etan Kontzertuak Elorrixoko Gaztetxean-Trastorno+Tres41+Stricalla. Gauerdian DJ Makala eta Jimmy Bidaurreta disko jartzaileak Ateneoan. Domekan, gazteentzat disko txiki festa plazan.

LITERATURA

ERMUA

» **XVI. Ermua Hiria literatur saria.** Literatur lehiaketa honek ohiko narratiba eta olerki modalitateak ditu. Lehiaketak 400 euroko sariak banatuko ditu narratiba eta olerkien atalean. Gaia libre eta autoreak aukeratzeko da. Lanak maiatzaren 7a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago Liburutegian.

MUSIKA

DURANGO

» **Doctor Deseo,** apirilaren 16an 22:00etan, Plateruenean.



» **IX. Gau elektronikoa,** apirilaren 9an 22:00etan, Plateruenean.

Ruben Costas eta Iker Under-sound Dj-en eskutik. Gau elektronikoak Mikel E, Soulrack eta El txf izango ditu bisitari.



ELORRIO

» **'Dj Jaia'** apirilaren 9an, 00:00etatik aurrera, Ateneoan.
» **Makala & Jimmy Bidaurreta** apirilaren 10ean Arriolan, 00:00eta-

tik aurrera Ateneoan.

ERMUA

» **Mariachi Real Azteca kontzertua** (Udaberriko jaia), 19:45ean apirilaren 17an. Orbe kardinalaren plazan.



ZORNOTZA

» **Euskal Strong Festival** apirilaren 16an 22:00etan Idaba Rock Cluben. Luxuzko kartela: Proudz, Conflit noise, B12, The Angel Manifesto eta Bullets of Misery.



Apirilaren 16an, 17:30ean

'ARTEA'

La Maquiné Granadako konpainiak musika, txotxongiloak eta objektuak erabiltzen ditu natura protagonista duen ikuskizun honetan. Natura hurbiltzen dien antzezlanean arte-zuhaitz baten bilakaera ikusiko da, piano baten zuzeneko doinuez lagunduta. Maite Arrese kontalaria ipiniko dio basoan gertatzen den istorio honi euskarazko ahotsa. Bost urtetik gorako umeei zuzendutako kalitateko antzerkia izango da Berrizko Kultur Etxean ikusgai.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'Un hombre soltero'**, apirilaren 15ean, 20:30ean, Zugazan.



ERMUA

» **'Looking for Eric'** apirilaren 15ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.



ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Ex-posados

Zuzendaria: Andy Tennant

barikua 9: 19:00/ 22:00

zapateria 10: 19:30/ 22:30

domeka 11: 19:30/ 22:30

astelehena 12: 19:00/ 22:00

martitzena 13: 20:00



Umeendako zinema

Como entrenar a tu dragón 3D

Zuzendaria: Peter Hastings

zapateria 10: 17:00

domeka 11: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Up in the air

Zuzendaria: Jason Reitman

domeka 11: 20:00

astelehena 12: 20:00

20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Precious

Zuzendaria: Lee Daniels

domeka 11: 20:00

astelehena 12: 20:00

20:00



Umeendako zinema

Arthur y la venganza de Maltazard

Zuz.: Luc Besson

domeka 11: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 9**
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
09:00-22:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Zapateria, 10
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Sanroma/ Sagastizabal/ De Diego/ Balenciaga/ Unamunzaga
• Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 11
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Astelehena, 12
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Martitzena, 13
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguaztena, 14
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Eguena, 15
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30
Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 8**
19° BARIKUA ☁
Eguraldiak hobetzera egingo du. Temperaturak gora egingo du. Dena dela, egunaren lehenengo partean hodeiak gailenduko dira oraindik zeruian, baina arratsaldean argitzera egingo du.
9
23° ZAPATUA ☀
Udaberriko eguraldi ederra espero da. Goizean lanbro apur bat sortuko da, baina laster lainoguneak ere, baina laster desagertuko dira. Goizaldean hego-haizea ibiliko da, goizean ipar-ekialdekoa.
9
23° DOMEKA ☀
7
18° ASTELEHENA ☀
7
13° MARTITZENA ☁

Izan zu zeu kazetari
eta argazkilari
Zure auzoko jaiak direla?
Ekimen bat prestatu duzuela?
Mendira joan eta paisaia zoragarriak
ikusituzula?

argazkiteka

berria

Bialdu zure argazkiak eta gure
WEBean izango dituzu ikusgai
Gura baduzu bialdu albistexoa
argazkiagaz batera



Bidali zure argazkiak: astekaria@anboto.org helbide elektronikora



anboto
komunikabideak

3



www.anboto.org

dimentsiotan

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Ikuskizunak Udaberri Sarian du jarraipena

Euskaltel-Euskadiren denboraldiko estraineko garaipena lortu zuen atzo Samuel Sanchezek Arraten. Alejandro Valverde hemugaratu zen bigarren eta sailkapen nagusiko lider ipini zen berriro. Durangatik ere pasatu zen atzoko etapa. Otxandiotik sartu, Mañaria, Izurtza, Durango eta Elorrio zeharkatu zituen lehenengo. Ondoren, berriro igaro ziren Elorriotik; han-

dik Miota zeharkatu eta Berriztik eta Zaldibartik Eibarreruntz abiatu ziren.

Gaurko eta biharko etapak falta dira Itzulia amaitzeko. Gaur Orion amaitu da lasterketa, eta birritan igoko dute Aiako mendatea (2. mailakoa).

Bihar, berriz, erlojupekoan ariko dira txirrindulariak; 22 kilometro dauzka Orion hasi eta amaituko den etapa.

Gaur arte korritu dituzten hiru lasterketek Oscar Freire izan dute protanista, modu batera edo bestera. Rabobanc taldeko txirrindulariak gatza eta piperra jarri dizkio lasterketari, lehenengo etapan berak gura barik izan bazen ere. Zierbenako kaleetan izandako sprintean berak zeharkatu zuen helmugako marra lehenengo, baina Alejandro Valverderi bidea itxi ziola

Eskualdeko hainbat herri zeharkatu zituen atzo Euskal Herriko Itzuliak

argudiatuz, epaileek bigarren tokira atzeratu zuten. Bigarren etapako sprintean berriro ere txirrindulari berak aurrez aurre aurkitu ziren. Orduko hartan, Valverdek aurrea hartu zion kantabriarrari. Herenegungo etapako azkeneko metroetan ere saiatu zen, baina Lampre taldeko Gavazzi nagusitu zitzaion.

Udaberri Saria

Bestalde, domekan Amorebieta Txirrindulari Elkarteak antolatuta, 56. Udaberri Saria korrituko da. 171 kilometro dauzkan lasterketa, eta ohi legez hiru bider pasatuko ditu Montecalvoko eta Autzaganeko gainak. 17 taldek konfirmatu dute euren parte-hartzea; tartean dira Euskaltel-Euskadi, Orbea eta Schleck anaiak batzen dituen Saxo Bank. Hala ere, oraindik aldaketak eman daitezke. ■ J.D.

24 Promoziorako postu onenaren bila

Durango Ilarduyak eta Eibarrek jaitsiera promozioa jokatu dute. Bihar elkarren kontra ariko dira. Irabazleak itzulerako neurketa etxean jokatzeko txartela lortuko du.

25 Asier Agirrerri elkarrizketa

Sasoi betean dabil Asier Agirre korrikalari gaztea. Bidezabal atletismo taldeagaz eta Javi Conde egokitutako kiroleko atletismo taldeagaz korritzen du 20 urteko durangarrak.

Promozioa ekidin ezin duenez kalterik txikiena gura du DRTk

Eibarri irabazita, promozioa itzulerako lehia etxean jokatuko luke



Eibarren kontra jokatuko du bihar Durango Ilarduyak. A. Dominguez

bigarren postutik bederatzita puntura. Beraz, ez du promozioa ekiditeko modurik. Hala ere, bihar 16:00etatik aurrera, Arripausuetan Eibarren kontra jokatuko duen partidua garrantzia handia dauka, ez da eta gauza bera azkeneko edo azkenaurreko geratu.

Eibar puntu bi goitik dago. Beraz, bihar garaipena lortzen duenak azken aurreko amaituko du liga. Beste multzoan badakigu, sorpresa itzelik ezean, Malaga eta Jaenek beteko dituztela azkeneko postu biak. Biharko partidua irabazten duenak Malaga ekidin ahal izango du—teorian arerio indartsuagoa—promozioa lehenengo parekatzean; eta hori baino garrantzitsua-

Beste multzoan Malagak eta Jaenek jokatuko dute jaitsierako promozioa

Oviedon jasandako porrotak promozioa ekiditeko aukera barik utzi zituen durangarrak

goa dena: bigarren partidua, hau da, itzulikoa, etxean jokatzeke eskubidea irabaziko du, zaleen babesean. Beraz, asko du jokoa DRTk.

Emakumeak ederto

Bestalde, azpimarratzekoa da emakumezko talde nagusiaren jarduna. Saikapenean hirugarren daude, eta argi dago multzoko indartsuen artean daudela Getxo, Gaztedi eta La Unica taldeekin batera. ■J.D.

Bigako azkenaurreko jardunaldian Oviedon jasandako porrotak promozioa jokatze-
ra behartuko du Durango Ilarduya. Ohorezko B mailako liga amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean, azkeneko postuan dago, salbazioa emango liokeen azken

Bihar 16:00etan jokatuko dute Arripausuetan partidua erabakiorra

Uriarte eta Aldape San Prudentzioko finalerdietan

Domekan San Prudentzio Pilota Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte nagusien mailan, Matienako pilotalekuan. Lehenengo finalerdietako protagonistetako bi Durangaldekoak dira: Rober Uriarte abadiñarra eta Andoni Aldape mallabitarra. Lehenengoak Ajuria izango du bizkartzain, eta Mallabiko atzelariak Olagua izango du aurrelari.

Bigarren finalerdian Atxotegik eta Bengoetxeak Ojuelen eta Loiolaren kontra jokatuko dute. Finalak maiatzaren 1ean jokatuko dituzte —baita kadete eta gazte mailan ere— San Prudentzio jaien barruan. ■J.D.

Marfil azpiratuta, liderraren etxean ere sorpresaren bila doa Tabirako

Igoera fasean goiko postuen borrokatik urrun dabilen arren, Tabirakok lehiakor izaten jarraitzen du, eta liga amaieran sorpresa bat baino gehiago eman dezake. Esaterako, azkeneko partiduan liderragaz garaipen kopuruan berdinduta zegoen Viajes Marfil menderatu zuen etxean (62-51). Bihar lider dagoen Cafés Aitona Donostiako taldearen aurka jokatuko du. Sei jardunaldiren faltan zortzina garaipenekin berdinduta daude lau talde: Cafés Aitona, Zornotza, Bidegintza eta Ardoi. Tabirakok bost garaipen dauka. ■J.D.

Anbotopekok lidertzari eutsi gura dio biharko derbia irabazita

Saskibaloian eta lehenengo erregionaleko igoera fasean derbia jokatuko dute bihar Tabirakok eta Anbotopekok. Fasea amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan Anbotopeko lider dago zortzi garaipenekin; garaipen kopuru bera du Centro Salmantinok ere. Talde horrek Rover azkenaurrekoaren kontra jokatuko du bihar.

Bestalde, Zaldia hirugarren dago saikapenean aipatutako biengandik garaipen bira. Bihar garaipen kopuru beragaz dagoen Romoko Ezkorak jasoko du Zaldibarko kiroldegian. ■J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Jaitsieraren arriskua

Aurten Durangoko bi talde denboraldi kaskarra egiten ari dira, eta horren ondorioz Sasikoa Ak eta Kurutziaga Ak jaitsieraren mamua dute buruan. Joan zen denboraldian talde biek igoera lortu zuten, eta ilusioarekin aurre egin zioten aurtengo denboraldiari (bakoitzak bere kategorian).

Sasikoa Ak hasi baino lehen bazekien ez zela erraza izango (nazional A mailan talde oso indartsuak daudelako) eta horregatik erronka saikapenaren erdialdean geratzea izan zitekeela finkatu zuten. Baina denboraldi hasiera zaila izan zuten (lesionatu asko eta Sasikoa Bra jo behar), puntu gutxi lortuz, eta hori zama astuna bihurtu da. Hala ere, ez dira kikildu, eta ezin dira hildakotzat jo; azkeneko jardunaldietan burua ateratzen ari dira beheko postutik, eta aurten balentria frogatu dute dagoeneko etxean Zierbana menderatuz.

Kurutziagaren kasuan, aldiz, lesionatuen kargari, planifikazio arazoak izan dituela gehitu behar zaio, eta jokalaria gutxiarekin egin behar izan dio aurre aurtengo denboraldiari. Irregularitasuna izan da beraien burukomina, eta nazional mailatik arrastreak egongo direla ikusita nahiko zaila dute salbazioa (nahiz eta fitxaketa berriei hobera jo). Baina areto-futbolak urteko ustekabeak ematen dizkigu, eta azken unera arte ez dago ezer erabakita.

Argi dagoena da, bai Sasikoan bai Kurutziagan, kemenik faltako ez denez, aurten izandako eskarmen-tuak etorkizunerako indartuko dituela bi taldeak.

Ez dakit zer mailatan jokatuko duten datorren urtean, baina bi taldeak azken arte lehian eta gozatzeko ikustea itxaroten dut, horretarako gaudelako honetan sartuta. Animo bie.

Pitch&Putt torneoagaz gozatu zuten DimaGolfen

Dimako golf zelaian antolatutako Pitch&Putt txapelketa 25 lagunek parte hartu zuten



Durangaldeko hainbat lagun izan ziren Diman. DimaGolf

Martxo amaieran Pitch&Putt modalitateko lehenengo Uda-berri Saria antolatu zuten DimaGolfen. Guztira, 25 lagunek parte hartu zuten txapelketan.

Goizean, lehiari ekin aurretik, 09:00ak inguruan gosaria eman zieten bertaratutako guztiei. Ondoren, 18 zuloak amaitutakoan, denentzako luntxa banatu zuten.

Txapelketari dagokionez, hiru mailatan banatu zituzten parte-hartzaileak, bakoitzaren joko mailaren arabera. Torneoaren helburua Pitch&Putt golf

modalitatea ezagutaraztea eta ondo pasatzea zen arren, behin lehian sartuta, gorputz eta arima aritu ziren guztiak. Azkenean, Bernardo Ortiz, Rafael Tamayo eta Kepa Ituza izan ziren udaberri torneoko irabazleak maila bakoitzean. ■J.D.

Bernardo Ortiz, Rafael Tamayo eta Kepa Ituza izan ziren irabazleak

“80 urtegar ere arineketan ikusiko nauzu osasunak laguntzen badit”



Zortzi urte zeuzkala hasi zen korrika Landako eskolan.

Asier Agirre (Durango, 20 urte) korrikalaria Bidezabalen eta Javi Conde egokitutako atletismo taldean dabil, bietan. Otsailean Espainiako Kross Txapelketa irabazi zuen; martxoan bigarren izan zen pista itxian, 3.000 metroko Espainiako Txapelketa.

Zelan baloratzen duzu Oviedon lortutako bigarren postua? Ondo baloratzen dut. Hasieratik indartsu irten nintzen, hil ala bizi. Azken kilometroan hauspoa bete egin zitzaidan, lehertu egin nintzen, eta lehenengo postua galdu nuen. Hala ere, gustura nago egindako lasterketaz.

Malagan korritutako Espainiako Kross Txapelketa podiumaren gorengo mailara igotzea lortu zenuen. Ibilbidean aldapak zeuden, eta

“Oinak lurrean daukat; badakit nire ibilbidearen hasieran bakarrik nagoela”

irabaztea oso gaitz ikusten nuen. Aldapan gora ondo molidatzen naiz, baina jaisten ez hainbeste, eta hortxe ikusten nuen zailtasuna. Hala ere, ondo aurkitu nintzen, bigarren itzulian burua hartu eta azken lau itzuliak bakarrik egin nituen. Beraz, lehenengo geratzea poz itzela izan zen niretzako.

Zu talde bigaz zabilta: Bidezabal atletismo taldeagaz eta Javi Conde egokitutako atletismo taldeagaz.

Javi Conderen taldeagaz orain hiru urte hasi nintzen. Urte hartan hainbat lasterketa korritu nituen; esaterako, Euskadiko Txapelketa bigarren geratu nintzen. Bidezabalen kadeteetan hasi nintzen, 14 urtegar. Hor ere hainbat lasterketa korritu izan ditut. Gogoan dut, esaterako, 2006an Espainiako Taldeka-

ko Txapelketa izan nintzela. Sailkapenaren erdi inguruan amaitu genuen. Maila itzela zegoen txapelketa. Ez zait ahaztuko egiten zuen hotza; elurra, haizea, baldintza gogorretan jardun genuen.

Errepidean, pistan eta krossean ibiltzen zara. Zer zoru mota duzu gustukoena?

Krossa dut gustukoena, eta errepideko lasterketa batzuetan ere gozatzen dut. Pista ez zait hainbeste gustatzen; beti zirkuitu berari bueltak eman beharra, beti erlojuaren kontra... psikologikoki gogorra da.

“Atzera -aurrera mugituan nabil aspaldian, baina gustura; ez daukat kexarik”

Orain urte erdi Budapesteko maratoni erdia korritu zenuen. Zer oroitzapen daukazu?

Oso esperientzia polita izan zen. Ni gehienez hamar kilometro egiten ohituta nago, eta 21 egin beharra aldaketa handia zen. Ordubete eta hemeretzi minutuko denbora egin nuen.

Aurten hiru tokitan diharduzu entrenatzen.

Orain arte Durangon ibili naiz, baina entrenatzailea aldatu dudanez eta bera bilbotarra denez, Zorrozan entrenatzen dut astelehen eta eguaztenetan; martitzenetan Basauriko pistan ibiltzen naiz, eta eguaztenetan Durangon.

Beraz, pistatik kanpora ere hara eta hona ibiltzen zara.

Bai, munduan zehar dabiltzan ibiltarietako bat ematen dut! Astearte eta eguaztenetan 23:00etan etxeratzen naiz. Baina asko ikasten nabil, eta gazte-xoei ere erakusten diet beroketak egiten-eta. Gustura nabil, eta ez daukat kexarik.

Zelan daukazu agenda? Zer erronka dira hurrengoak?

Hilaren 17an Bizkaiko Txapelketa izango da Zamudion, Parke Teknologikoaren inguruan. Maiatzaren amaieran, Basaurin, Euskadiko Pistako Txapelketa ibiliko naiz.

Bietan irabaztea duzu helburu?

Irabaztea gura nuke, baina oinak lurrean izan behar dira. Ezer lortu aurretik ospatzen hastea ez da zuhurra. Lasterketen aurretik beti oso nerbioa ipintzen naiz; esaterako, sekula ez dakizu makalaldi bat noiz etorri daitekeen. Espainiako txapelduna izan naiz, baina nire ibilbidearen hasieran nago oraindik. Hemen-dik hogeitaz atzera begiratu eta palmaren ona lortu dudala ikusten badut, orduan izango ditut arrotzeko motiboak. Bitartean, oinak lurrean eta lanera!

Atletismoan izan duzu idolorik? Nor hartu duzu eredu moduan?

Javi Conde. Berak ere ezinduen artean korritzen du, eta egin duenak meritu itzela dauka. Bata bestearen atzetik, bost Joko Paralinpikotan izan da. Hori lortu duen euskal atleta paralinpiko bakarra da.

Zu oso gazterik hasi zinen atletismoan...

Zortzi urtegar, Landako eskolan. Gaztetxotan oso urduria nintzen; ezin geldirik egon! Nekatu nendin gurasoek atletismora apuntatu ninduten. Eta, hara nondik, aurrera darrat. Nik 80 urtegar arineketan segitzeko esperantza daukat. Ez da kirol garestia, eta gorputza sasoiaren mantentzeko aproposa da... Osasunak laguntzen badit 80 urtegar korrika ikusiko nauzu. ■ J.D.

“Umetan urduria nintzen, eta nekatu nendin apuntatu ninduten gurasoek atletismoan”

Agenda

FUTBOLA LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Zamudio B
Domekan, 18:00etan, Larrakozelain
Zaldia - Artibai
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA Eitorrio B - Berriz B
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

ARETO-FUTBOLA NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Aretxabaleta
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

SASKIBALOA LEHENENGO ERREGIONALA (igoera fasea)

Julza-Zaldia - Romoko Ezkorak
Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroldegian
Tabirako - Anbotopeko
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

ERRUGBIA OHOREZKO B MAILA


Durango Ilarduya - Eibar
Zapatuan, 16:00etan, Arripausetan
EUSKAL LIGA (gizonak)
Durango Ilarduya - Arrasate
Zapatuan, 17:30ean, Arripausetan

PILOTA BIHARKO IZARRAK

- Azpiri-Linzoain / Atxotegi-Olalde
- Andreu-Galarraga / Ezkurdi-Zubiri
Eguenean, 21:30ean, Mallabia I pilotalekuan
SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA
Kadeteak:
- Sarasti-Imaz / Iribarria-Goñi
- Garcia-Perez / Ibarrodo-Gonzalez
Gazteak:
- Berberena-Beraza / Loban-Mina
- Santxo-Lizeaga / Legorburu-Galarza
Barikuan, 20:15ean, Matienako pilotalekuan
Gazteak:
- Etxaniz-Aizpuru / Tainta-Irusta
Nagusiak (finalerdia):
- Olagua-Aldape / Uriarte-Ajuria
- Atxotegi-Bengoetxea / Ojuel-Loiola
Domekan, 17:00etan, Matienan

SAILKAPENAK

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Real Sociedad B...64	1- Cafés Aitona.....8 (+85)	1- Bera Bera24 (+404)
2- Amorebieta.....63	2- Zornotza8 (+65)	2- Ardoi21 (+415)
3- Portugalete59	3- Bidegintza.....8 (+60)	3- Gemika21 (+347)
4- Beasain56	4- Ardoi8 (+21)	4- Cafés Aitona ...17 (+127)
5- Gemika.....55	5- Viajes Marfil7 (+40)	5- Las Gaunas ...17 (+99)
6- Elgoibar54	6- Padura.....6 (+7)	6- Tabirako14 (+139)
7- Kulturala.....53	7- Tabirako.....5 (-35)	7- Deusto-Loiola .13 (+64)
8- Zamudio.....50	8- Arabako EHU.....4 (-81)	8- Obenasa13 (-86)
9- Amurrio.....49	9- Goierri Verkol.....3 (-60)	9- Abaroa12 (+78)
10- Basconia.....47	10- Seky.es.....3 (-102)	10- Elexalde11 (-84)
11- Arenas43		11- Getxo10 (-151)
12- Zalla.....42		12- Arabako EHU 9 (-24)
13- Santurtzi41		13- Atletico SN 9 (-100)
14- Laudio.....41		14- Irlandesas 3 (-494)
		15- Artieda 3 (-254)
		16- San Ignacio 2 (-480)



Durangoko Kulturalak 49 gol sartu eta 37 jaso ditu aurtengo denboraldian

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA



ZALDIBARKO UDALA

LAUHANKA[>]



Ontze-zikloa ezinbestekoa da arrainek irauteko

Ur berokoak, hotzekoak eta itsas-akuarioak daude

Arrain kopuru eta espezieak hautatzeko hainbat faktore izan behar da kontutan

Arrainontzia prestatzeak pazientzia eskatzen du

Arrainak berehala arrainontzian sartu gura izaten ditugu, baina pausu batzuk jarraitu behar dira.

Etxean arrainontzi bat izateak ekosistema bat sortzen gabiltzala esan nahi du, beraz, baldintza egokiak eskaini behar dizkiegu bertan biziko diren arrainei.

Lehenengo eta behin, arrainontziaren tamaina erabaki behar da, etxean dugun tokiaren eta gastatu gura dugun aurrekontuaren arabera. Hori bai, arrainontziak, gutxienez, 40 litro izan behar ditu, lau-bost arrain baino gehiago sartu gura baditugu behintzat. Akuarioak ur bero-koak, hotzekoak edo itsas-akuarioak izan daitezke. Azken hau ez da gomendagarria hasiberrientzat, zainketa bereziagoa behar duelako. Ohikoena ur beroko akuarioak izaten dira.

Arrainontzi bat sortu nahi dugunean, berehala sartu gura izaten ditugu arrainak, baina pazientzia izan behar da; pausu

batzuk jarraitu behar dira akuarioa arrainontziko prest egoteko. Horrela egin ezean, arrainek ez dute asko irauten.

Arrainontziak filtro bat izan behar du, ura baldintza egokietan egoteko. Legarra ere beharrezkoa da, akuarioaren behealdean jartzeko. Landare biziak ere sartu daitezke, baina ongaria eta argia behar dute, gutxienez egunean 10-12 orduz. Ondoren arrainontzian ura sartuko dugu; iturriko ur tratatua, kloroa arrainontzat kaltegarria da-eta.

Ontze-zikloa

Akuarioan arrainak sartu aurretik, "nitifikatzaile bakteriak" sartuko ditugu, arrainontzian oso kaltegarriak diren sustantziak deuseztatzeko: amoniakoa eta nitratoak. Sustantzia horiek arrainen kakek sortzen dituzte. Beraz, akuarioa bakterio horregaz

bakarrik egongo da hiru-lau astez, hasi eta ugalduta daitezke. Ondoren arrainak sartuko ditugu.

Zenbat arrain?

Arrain kopurua arrainontziaren tamainaren, landarek badagoen ala ez, eta filtroaren arabera izango da. Arrainak zer mailatan igeri egiten duten ere kontuan izan behar da. Arrainak gehitzean ez da komeni mailak gehiegi betetzea.

Carassius arrainak ur hotzeko arrainontzian sartzeko egokiak dira; gainera, tamaina eta kolore askotakoak daude. Bestalde, ur beroko akuario tropikalak aukera zabala eskaintzen digu, landare eta arrainak sartu ditzakegu. Arrainen hainbat espezie sartu daitezke, baina, betiere, bakoitzak daukan lurraldetasun agresibitate eta konpatibilitateak kontuan izanda.

Nire txakurrak batzuetan krisi antzeko batzuk izan, lurrera jauzi eta konortea galtzen duela ematen du. Zer gertatzen zaio? Aitor (Berriz).

Sinkope, zorabio edo krisi epileptikoren bat den ikusi beharko genuke, tratamendua eta pronostikoa oso desberdina lirateke-eta. Txakurrak, pertsonak legez, epileptikoak izan daitezke, eta epilepsia horren jatorria aztertu beharra dago. Sinkopea balitz, bihotzeko-gaixotasuna izan liteke. Beraz, zure txakurrak azterketa mediko orokorra, odol analisia, radiografiak edo elektrograma bat beharko luke diagnostiko zehatza egin eta tratamendu egokia jartzeko.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika



anboto.iragarki**laburrak**.com



etxea saldu edo alokatu nahi baduzu

ostalaritzan lan bila nabil
non aurkitu baina?

mendiak zurituta daude jada, erabiltzen
ez duzun materiala duzu etxean?

liburuak diskoen truke hartu nahi
dituen norbaiten bila nabil

sofa berri duzu eta zaharrarekin
ez dakizu zer egin?

haurra koskortu zaizu eta dagoeneko
kotxea ez duzu behar?

zergatik joan bakarrik lantokira
autoa konpartitu dezakezunean?



Interneten

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 3 hilabetez
egongo dira zuen iragarkiak

Paperean

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 6 astez
